
— Plan de Etapas.

— Estudio Económico Financiero.

3. De la correcta aplicación jurídica de los diversos documentos.

La parte normativa propiamente dicha es la denominada parte dispositiva, constituida por las Ordenanzas y los Planos de Ordenación.

La parte expositiva/justificativa, ofrece los criterios interpretativos auténticos aplicables en primer lugar a las disposiciones normativas.

En caso de contradicción entre los documentos gráficos y escritos, prevalecerán los escritos.

Asimismo, en caso de contradicción en la definición de una determinación urbanística concreta entre planos a diferentes escalas, prevalecerá lo establecido en los planos ejecutados a una escala más detallada.

4. En aquellos casos de orden general no contemplados en estas Ordenanzas, regirán las Ordenanzas correspondientes a las Normas Subsidiarias de Planeamiento de Ikaztegieta.

Artículo 5. Requisitos generales para la ejecución.

1. Para la ejecución del contenido del presente Plan Parcial será necesaria la previa aprobación definitiva del Proyecto de Urbanización de desarrollo que se establece en las presentes Ordenanzas.

2. Recaída la Aprobación Definitiva del Plan Parcial y Proyecto de Urbanización, podrá edificarse en el ámbito del polígono P-2-Benta, antes de que los terrenos estén totalmente urbanizados, siempre que se cumplan los requisitos siguientes:

a) Que por el estado de realización de las obras de urbanización, la Administración considere previsible que a la terminación de la urbanización, la parcela de que se trate contará con todos los servicios necesarios para tener la condición de solar.

b) Que en el escrito de la solicitud de licencia, se comprometa a no utilizar la construcción hasta que no estén concluidas las obras de urbanización.

3. No se permitirá la ocupación de las edificaciones hasta que no esté totalmente terminada la urbanización que afecte a dichos edificios y estén en condiciones de funcionamiento los suministros de agua, energía eléctrica y las redes de saneamiento.

BIGARREN IDAZPURUA

HIRIGINTZA ERREGIMENA

1. KAPITULUA. LURRAREN KALIFIKAZIO
XEHEKATUAREN ERREGIMENA

6. artikulua. *Kalifikazio aplikagarriaren erregimena zehaztea.*

Ikaztegieta P-2-Benta poligonoko lurzoru hiritargari industrialeko Alorrek hartzen duen esparrua, honako kapitulu honetan zehazten den kalifikazio xehekatuaren erregimenpean dago, Alorreko Plan honetako «Zonakatzea eta erabilera xehekatuak» izeneko planoan finkatuta dagoen zonakatze xehekatuaren arabera.

7. artikulua. *Zonakatze Kodea.*

Ikaztegieta P-2-Benta poligonoko lurzoru hiritargari industrialeko Alorrek hartzen duen esparruko zonakatze xehekatua, honako «erabilera xehekatuko zonen» zerrenda honi lotzen zaio:

1. Industri erabilerako lurra.
2. Jabari eta erabilera publikoko espazio libreen sistema lokala (lorategiak).
3. Ekipamenduetarako erreserba (herriaren eta gizartearen onurako zerbitzuak).
 - 3.1. Kirol parkea.
 - 3.2. Gizarte eta merkataritza ekipamendua.
4. Bide sistema.
 - 4.1. Bide sistema orokorra (GI-2131).
 - 4.2. Ibilgailuen eta oinezkoen zirkulaziorako bideak, eta erabilera publikoko zorpene izango duten aparkamendu pribatuak.

Azpibanatzeari, jabariari, hirigintza erabilerari eta eraikuntzari dagokionez, honako baldintzak beteko dituzte:

1. Industri erabilerako lurra.

Azpibanaketa hau ezarri da:

 - 1.1. Okupa daitekeen lur zatia edo eraikigarria.

— Jabaria: Pribatua.

— Hirigintza erabilera: Industria. Alorreko Plan honetan arautua dago industri erabilerako lur zatien ordenantzetan (Hirugarren Idazpurua, 1. Kapituluak, 2. Atala).

— Eraikuntza: Industri erabilerako lur zatien ordenantzetan arautua dago (Hirugarren Idazpurua, 1. Kapituluak, 1. Atala).
 - 1.2. Eraikuntzarik gabeko lur zatia, erabilera pribatukoa.

— Jabaria: Pribatua.

— Hirigintza erabilera: Ibilgailuen bideak, aparkalekuak, maniobra guneak, berdegune lorategidunak eta oinezkoen bideak. Bide publikoen ondoko eremuetan alorreko instalazioak eta azpiegiturak ezartzeko zorpene izango du, behar bezala funtzionatzeko halakorik behar bada behintzat.

— Eraikuntza: Baztertua, baimendutako hirigintza erabilerak ezartzeko beharrezkoak diren elementu arinak izan ezik.
2. Erabilera eta jabari publikoko espazio libreen sistema lokala.

— Lorategien hornidura betetzeko arauz gorde beharrekoa. (Gutxienez gorde beharrekoa: Antolatutako lurzoruaren %10; 20.983 m²-ren \geq %10, 2.098 m²).

— Jabaria: Publikoa (Udalarena).

TITULO SEGUNDO

REGIMEN URBANISTICO

CAPITULO 1. REGIMEN DE CALIFICACION
PORMENORIZADA DEL SUELO

Artículo 6. *Definición del régimen de calificación aplicable.*

El ámbito del Sector de suelo urbanizable industrial del polígono P-2.P-2-Benta de Ikaztegieta, queda sometido al régimen de calificación pormenorizada que se define en el presente capítulo, de acuerdo con la zonificación pormenorizada establecida en el Plano de «Zonificación y usos pormenorizados» del presente Plan Parcial.

Artículo 7. *Código de Zonificación.*

La zonificación pormenorizada del ámbito del Sector de suelo urbanizable industrial del polígono P-2.P-2-Benta de Ikaztegieta, se ajusta a la siguiente relación de «zonas de uso pormenorizado».

1. Suelo de uso industrial.
2. Sistema Local de Espacios Libres de Dominio y Uso Público (jardines).
3. Reservas de Equipamientos (Servicios de Interés Público y Social).
 - 3.1. Parque Deportivo.
 - 3.2. Equipamiento Social y Comercial.
4. Sistema viario.
 - 4.1. Sistema general viario (GI-2131).
 - 4.2. Vialidad rodada-peatonal y aparcamientos privados con servidumbre de uso público.

Con las siguientes especificaciones de subdivisión, dominio, uso urbanístico y edificación:

1. Suelo de uso industrial.

Se establece la siguiente subdivisión:

 - 1.1. Parcela ocupable o edificable.

— Dominio: Privado.

— Uso urbanístico: Industrial. Regulado por las Ordenanzas del presente Plan Parcial, para las parcelas de uso industrial (Título Tercero, Capítulo 1 en su sección 2.^a).

— Edificación: Regulado por las Ordenanzas para las parcelas de uso industrial (Título Tercero, Capítulo 1 en su sección 1.^a).
 - 1.2. Parcela libre de edificación, de uso privado.

— Dominio: Privado.

— Uso urbanístico: Vialidad rodada, aparcamientos, zonas de maniobra, zonas verdes ajardinadas y vialidad peatonal, con servidumbre para instalaciones e infraestructuras del polígono, en las zonas limítrofes con la vialidad pública, de ser necesarias para su correcto funcionamiento.

— Edificación: Excluida, salvo los elementos ligeros que sean necesarios para los usos urbanísticos permitidos.
2. Sistema Local de Espacios Libres de Uso y Dominio Público.

— Reserva reglamentaria para dotación de jardines. (Reserva mínima del 10% del suelo ordenado; \geq 10% s/20.983 m², 2.098 m²).

— Dominio: Público (Ayuntamiento).

— Hirigintza erabilera: Parkea, lorategia, bidezidorra, oinezkoen pasealekua, urbanizazio bigunekoa, jolasguneak, egonlekuak, eta abar. Edonork erabiltzekoa. Debehatuta dago materialak pilatzea edo biltegitratzea. Poligonoko instalazio eta azpiegituren pasabiderako zorpena izango du, baldin eta elementu horiek alorraren funtzionamendu egokirako beharrezkoak badira eta, betiere, dagokien erabilera publikoa eragozten edota mugatzen ez badute eta eman zaien erabilera, espazio lokal libreko lorategiena, kaltetzen ez bada.

— Eraikuntza: Baztertua, instalazio edo azpiegitura publikoen elementu lagungarri txikiak izan ezik.

3. Ekipamendurako erreserbak (herriaren eta gizartearen onurako zerbitzuak).

Azpibanaketa hau ezarri da:

3.1. Kirol parkea.

— Kirol parkearen hornidura betetzeko arauz gorde beharrekoa. (Gutxienez gorde beharrekoa: Antolatutako lurzorua $\geq 10\%$; $\geq 20.983 \text{ m}^2$ -ren $\geq 2\%$, $\geq 420 \text{ m}^2$).

— Jabaria: Publikoa (Udalarena).

— Hirigintza erabilera: Kirol arlokoak: Edonork erabiltzekoa. Kirol ekipamendurako lur zatiaren ordenantzetan araututa dago (Hirugarren Idazpurua, 3-1. Kapitulua).

— Eraikuntza: Kirol ekipamendurako lur zatiaren ordenantzetan araututa dago (Hirugarren Idazpurua, 3-1. Kapitulua).

3.2. Gizarte eta merkataritza ekipamendua.

— Gizarte eta merkataritza ekipamenduaren hornidura betetzeko arauz gorde beharrekoa. (Baterako erreserba, antolatutako lurzorua $\geq 2\%$ (%1 merkataritza ekipamendurako + %1 Gizarte Ekipamendurako = 20.983 m^2 -ren $\geq 2\%$, $\geq 420 \text{ m}^2$).

— Jabaria: Publikoa (Udalarena).

— Hirigintza erabilera: Herriaren eta gizartearen onurako zerbitzuak. Gizarte eta merkataritza ekipamendurako lur zatiaren ordenantzetan araututa dago (Hirugarren Idazpurua, 3-2. Kapitulua).

— Eraikuntza: Gizarte eta merkataritza ekipamendurako lur zatiaren ordenantzetan araututa dago (Hirugarren Idazpurua, 3-2. Kapitulua).

4. Bide sistema.

Azpibanaketa hau ezarri da:

4.1. Bide sistema orokorra (GI-2131, Ordiziatik Alegiara-koa).

— Jabaria: Publikoa (Gipuzkoako Foru Aldundiarena).

— Hirigintza erabilera: Ibilgailuen zirkulaziorako eskualde mailako errepidea (sare berdea), Gipuzkoako errepide eta bideen azaroaren 25eko 17/1994 Foru Arauan xedatutakoaren arabera.

— Eraikuntza: Baztertua.

4.2. Ibilgailuen eta oinezkoen zirkulaziorako bideak, eta erabilera publikoko zorpena izango duten aparkamendu pribatuak.

— Jabaria: Pribatua, erabilera publikoko zorpenarekin.

— Hirigintza erabilera: Industriadariko alor berriko ibilgailu eta oinezkoen zirkulazioa, galtzadaren ondoko aparkamendua eta ondoan geratzen diren espazio libre edo lorategiak. Poligonoren zerbitzurako instalazio eta azpiegituren pasabidea.

— Eraikuntza: Baztertua, poligonoren zerbitzurako instalazio edo azpiegitura publikoen elementu lagungarri txikiak izan ezik.

— Uso urbanístico: Parque, jardín, senda, paseo peatonal con urbanización blanda, áreas de juego y estancia, etc. Acceso libre. No se permite el uso de almacenamiento o acopio de materiales. Servidumbre de paso de instalaciones e infraestructuras del polígono, que sean necesarias para su correcto funcionamiento y siempre que no impidan o limiten su uso público y su destino a jardines del espacio local libre.

— Edificación: Excluida, salvo pequeños elementos auxiliares de las instalaciones o infraestructuras de carácter público, en su caso.

3. Reservas de Equipamiento (Servicios de Interés Público y Social).

Se establece la siguiente subdivisión:

3.1. Parque Deportivo.

— Reserva reglamentaria para dotación de parque deportivo. (Reserva mínima del 2% del suelo ordenado; $\geq 2\%$ s/20.983 m², $\geq 420 \text{ m}^2$).

— Dominio: Público (Ayuntamiento).

— Uso urbanístico: Deportivo. Acceso libre. Regulado por las Ordenanzas para la parcela de Equipamiento Deportivo (Título Tercero, Capítulo 3-1).

— Edificación: Regulado por las Ordenanzas para la parcela de Equipamiento Deportivo (Título Tercero, Capítulo 3-1).

3.2. Equipamiento social y comercial.

— Reserva reglamentaria para dotación de equipamiento Social y Comercial. (Reserva mínima conjunta del 2% del suelo ordenado (1% Equipamiento comercial + 1% Equipamiento Social; $\geq 2\%$ s/20.983 m², $\geq 420 \text{ m}^2$).

— Dominio: Público (Ayuntamiento).

— Uso urbanístico: Servicios de Interés Público y Social. Regulado por las Ordenanzas para la parcela de Equipamiento Social y Comercial (Título Tercero, capítulo 3-2).

— Edificación: Regulado por las Ordenanzas para la parcela de Equipamiento Social y Comercial (Título Tercero, Capítulo 3-2).

4. Sistema Viario.

Se establece la siguiente subdivisión:

4.1. Sistema general viario (GI-2131 de Ordizia a Alegia).

— Dominio: Público (Diputación Foral de Gipuzkoa).

— Uso urbanístico: Circulación rodada de carácter comarcal (red verde), y según lo determinado por la Norma Foral 17/1994 de 25 de noviembre de Carreteras y Caminos de Gipuzkoa.

— Edificación: Excluida.

4.2. Vialidad rodada-peatonal y aparcamientos privados con servidumbre de uso público.

— Dominio: Privado, con servidumbre de uso público.

— Uso urbanístico: Circulaciones rodadas y peatonales del nuevo sector industrial, aparcamientos anejos a la calzada y ajardinamiento de espacios libres residuales anejos. Paso de instalaciones e infraestructuras al servicio del polígono.

— Edificación: Excluida, salvo pequeños elementos auxiliares de las instalaciones e infraestructuras de servicios del polígono.

2. KAPITULUA. ALORREKO PLANA GARATZEKO PLANEAMENDU ERREGIMENA

8. artikulua. Xehetasunezko Azterketak.

Eraikuntzak hala aginduta, Alorreko Plan honetan aurreikusitako lerrokadurak eta sestrak aldatu beharra ondorioztatzen bada, aldaketa hori Xehetasunezko Azterketa baten bidez egingo da, Alorreko Plana bera aldatu beharrik gabe. Ezarritako izaera orientagarriari jarraituz, garrantzi handirik gabeko doikuntza txikiak ez dira Xehetasunezko Azterketa behar duten aldaketatzat joko, ondoko lur zatietako erabilera edo eraikuntza aldatzen edo eragozten ez badute behintzat.

Xehetasunezko Azterketa derrigorrez tramitatu beharko da, besteak beste, espazio publikoen edota lur zati eraikigarrien barruan erabilera publikoko zorpena izango duten ataletako sestrak edota lerrokadurak egokitu nahi direnean; eta, egokitzapen horien ondorioz, lur zati horien edo beste lur zatien antolaketa nabarmen aldatzen denean eta Alorreko Plan honetan ezarritakoaren arabera garatzea ezinezkoa bihurtzen denean.

Xehetasunezko Azterketek, lerrokadurak doitzekoan, halako aldaketa puntualak egin ditzakete komunikazioen eta espazio librearen sistema lokalaren zonakatzeko xehekatuan. Hala eta guztiz ere, ibilgailuen zirkulaziorako elementu berririk ezin izango da ireki, ez lehengorik ezabatu, ezta lur zati edo espazio librearen zonakatzeko aldatu ere, baldin eta elementu horiek 1976ko Lur Legeko 50. artikuluan ezarritako mugak badituzte.

9. artikulua. Hiritartze proiektuak.

Alorreko Plan honetan ezarritako xedapenak gauzatzearen, Hiritartze Proiektu bat erredaktatuko da plan honi bakarrik dagozkion eremu edo espazioetarako (Ordiziatik Alegiarako GI-2131 eskualde mailako errepidearen sistema orokorra, eta erabilera nahiz jabari publikoko espazio librearen sistema lokala), elementu desberdinen baldintza teknikoak, eraikuntzakoak edota xehetasunezkoak, hiritartze proiektu hori gauzatzeko onartzen diren fase edo aldiak edozein direla ere.

Industriarako alor berri honetarako aurreikusi den ibilgailuen eta oinezkoen zirkulaziorako bide sareak eta bide horiei erantsitako aparkalekuek erabilera publikoko zorpena izango dutenez, bide sare horrentzako egiten den hiritartze proiektua lehengo hiritartze proiektu publikoaren batu ahal izango da, agiri bakar bat osatuz. Hala ere, aipatutako bi erabilera ondo berezi beharko dira, bakoitzaren deskripzioa, eraikuntza sistema, xehetasunak eta ebaluaketa ekonomikoa garbi adieraziz.

Erabilera eta jabetza pribatua izango duten gainerako espazio librearen hiritartze lanak, berriz, hiritartze proiektu pribatuaren sartuko dira; eta hori, hiritartze proiektuarekin batera aurkeztuko da Udaletxean, industriarako eraikuntza proiektuaren eranskin gisa, lurzoru industriala banatzearen ondorioz sortutako lur zati edo azpisail bakoitzean eraikitzeko baimena eskatu ahal izateko.

10. artikulua. Hiritartze Proiektu publikoaren mugak antolamendua egokitzearen.

Hiritartze Proiektu Publikoak, bide sistema orokorraren (GI-2131) eta jabari nahiz erabilera publikoko espazio librearen sistemaren elementuen antolamenduko lerrokadurak eta sestrak doitu ahal izango ditu; eta baita ibilgailuen eta oinezkoen zirkulaziorako bideen eta erabilera publikoa izango duten aparkaleku pribatuak ere, halakorik izanez gero. Era berean, aipatutako elementuen zonakatzeko xehekatua ere hein batean aldatu ahal izango du, baldin eta elementu horiek 1976ko Lur Legeko 50. artikuluan eraginpean ez badaude eta, betiere, egokitzapen horrek beren erabilera eta eraikuntza nabarmen aldatzen ez badu edota, Alorreko Plan honetan ezarritakoa garatzeko eragozpenik eragiten ez badu.

CAPITULO 2. REGIMEN DE PLANEAMIENTO PARA EL DESARROLLO DEL PLAN PARCIAL

Artículo 8. Estudios de Detalle.

Si por necesidades de la construcción, se hiciera necesario modificar las alineaciones y rasantes previstas en el presente Plan Parcial, se efectuarán a través de un Estudio de Detalle, sin necesidad de proceder a la modificación del Plan Parcial. Dado el carácter orientativo establecido, los pequeños reajustes de las mismas y sin mayor relevancia, no tendrán carácter de modificación que exija un Estudio de Detalle, mientras no alteren o impidan el uso o edificación de las parcelas colindantes.

Será preceptiva la tramitación de un Estudio de Detalle, entre otros casos, cuando se pretendan modificar las rasantes y/o alineaciones incluso de los espacios públicos y de aquellas partes de las parcelas edificables sometidas a uso público, y cuando dicha modificación altere la ordenación de éstas u otras parcelas, haciendo inviable su desarrollo de acuerdo a lo establecido en el Plan Parcial.

Al reajustar alineaciones, los Estudios de Detalle podrán incluir modificaciones en la zonificación pormenorizada del Sistema Local de Comunicaciones y de los Espacios Libres, pero ello, en ningún caso podrá dar lugar a la modificación, apertura o eliminación de elementos de vialidad rodada o a la modificación de la zonificación de parcelas o espacios libres, con las limitaciones del artículo 50 de la Ley del Suelo de 1976.

Artículo 9. Proyectos de Urbanización.

Para el desarrollo de las determinaciones que el Plan Parcial establece para los espacios o zonas que le son exclusivas (Sistema General de la carretera de la red comarcal GI-2131 de Ordizia a Alegia, y sistema Local de Espacios Libres de uso y dominio público), se redactará un Proyecto de Urbanización Pública, quien fijará las condiciones técnicas, constructivas y de detalle de sus distintos componentes, con independencia de las fases o etapas que se puedan establecer para su ejecución.

Dada la servidumbre de uso público propuesta para la red rodada-peatonal y aparcamientos anejos del nuevo sector industrial, el proyecto de urbanización de dicha red viaria, podrá unificarse con el anterior proyecto de urbanización pública, para conformar un único documento, si bien diferenciando claramente los dos usos mencionados, tanto en descripción, características, sistemas constructivos y de detalle, como de su evaluación económica.

El resto de la urbanización de los espacios libres de exclusivo uso y propiedad privada, se incluirán en un proyecto de urbanización privada, que como anejo al proyecto de edificación industrial, se presentará conjuntamente al Ayuntamiento en el momento de solicitud de la correspondiente licencia de edificación, en cada una de las parcelas o subparcelas en que se pueda dividir el suelo industrial.

Artículo 10. Límites de la posibilidad de adaptación de la ordenación por el Proyecto de Urbanización Pública.

El Proyecto de Urbanización Pública, podrá adaptar las alineaciones y rasantes de la ordenación de los elementos del Sistema General Viario (GI-2131) y del Sistema de Espacios Libres de dominio y uso público, y en su caso, de la vialidad rodada-peatonal y aparcamientos privados con servidumbre de uso público, afectando incluso de forma puntual a la zonificación pormenorizada relativa de dichos elementos no sometidos al régimen del artículo 50 de la Ley del Suelo 1.976, siempre y cuando dicha adaptación no suponga modificación sustancial que impidan su uso, edificación o hagan inviable su desarrollo de acuerdo a lo establecido en este Plan Parcial.

3. KAPITULUA. ALORREKO PLANA GARATZEKO HIRIGINTZA ERREGIMENA.

11. artikulua. *Gauzatze unitateak.*

Alorreko Plana gauzatze unitate bakar baten bidez garatuko da.

Alorreko Plana behin betiko onartu ondoren, berau garatzeko Hiritartze Proiektu bat erredaktatu eta onartu beharko da. Erabilera eta jabari publikoko zona edo eremuetan egin beharreko obren ezaugarriak proiektu horretan zehaztuko dira; baita erabilera publiko zorpene izango duen bide sare pribatuan egin beharreko obren ezaugarriak ere, halakorik izanez gero behintzat.

12. artikulua. *Alorreko Plana garatzea eta gauzatzea.*

Alorreko Plan honek Konpentsazio sistemaren bidez jardutea proposatzen du, «A. Memoria» dokumentuko «10. Kudeaketa eta Jarduketa Sistema» atalean adierazi den moduan.

Hala eta guztiz ere, beharrezkotzat edo komenigarritzat jotzen bada, jarduketa sistema hori dagokion espediente administratiboaren bidez aldatu ahal izango da, plangintzako hirigintza-tresnak aldatu beharrik gabe.

Alorreko Plan hau, «D. Etapen Plana» dokumentuan ezarritako jarduketa erregimenaren arabera garatuko da.

13. artikulua. *Antolamenduz kanpoko eraikin eta instalazioak.*

Industriarako alor berri hiritargarri honetan ez dago bistako eraikinik eta airetiko instalaziorik; beraz, ez dago eta ez da proposatu inolako «antolamenduz kanpoko» elementurik.

14. artikulua. *Lurzatiketak.*

Ikaztegietako Hiri Antolaketako Arauak aldatzeko dokumentuan, P-2-Benta industriarako alor hiritargarri berri hau sortzearen hirigintza helburua izan zen Legorretako 19. zonan kokaturik dauden enpresei garapen osagarriak burutzeko aukera ematea, dauden lekuan ezinezkoa baitzaie.

Eta helburu horren barruan, Eredu S. Coop. enpresak lortu nahi duena da Legorretako 19. zonan, Ikaztegietako alor industrial berri honen aurrez aurre, gaur egun dituen instalazioak zabaltzeko eta handitzeko aukera emango dion lurzoruko hiritargarria lortzea. Eredu berri hori, lehengaien eta gauzatutako produktuen biltegi gisa erabiliko luke batez ere.

Alorreko Plan honetako antolamendu plano desberdinetan proposatzen den eraikuntzak Eredu S. Coop. enpresaren handitze-premiei erantzungo die, aldi berean esparruko topografia orokorrari eutsiz eta dagokion araudi sektorialak ezarritako distantziak mantenduz. Beraz, ondoriozta daitekeen moduan, industriarako lurzati pribatu bakar bat proposatu denez, ez du zentzurik Eredu, S. Coop. enpresa zabaltzeko egin den proposamenaz aparte beste inolako lurzatiketak proposatzeak edo aipatzeak ere.

Hori horrela, proposatu den gutxieneko lur zatia bat dator lehen ere proposatutako lur zati bakarrarekin, nahiz eta esparru horren barruan, jabetza beraren eraikin bat baino gehiago egin ahal izango diren.

CAPITULO 3. REGIMEN DE ACTUACION URBANISTICA PARA EL DESARROLLO DEL PLAN PARCIAL

Artículo 11. *Unidades de Ejecución.*

Este Plan Parcial, se desarrollará a través de una única Unidad de Ejecución.

Una vez aprobado definitivamente, su desarrollo se llevará a cabo mediante la redacción y aprobación del Proyecto de Urbanización, quien definirá las características de las obras en las zonas o espacios de Uso y Dominio Público, y en su caso, de las características de las obras en la red viaria privada con servidumbre de uso público.

Artículo 12. *Desarrollo y ejecución del Plan Parcial.*

El Sistema de Actuación propuesto por el presente Plan Parcial es el de Compensación, tal y como se ha explicado en el apartado 10. –Gestión y Sistema de Actuación del Documento A– Memoria.

Sin embargo, dicho Sistema de Actuación, y de estimarse necesario y/o conveniente, podrá ser modificado por medio del correspondiente Expediente administrativo, y sin que ello suponga la necesidad de modificar los instrumentos de Planeamiento.

El desarrollo del presente Plan Parcial, se ajustará al régimen de actuación establecido por el Documento D –Plan de Etapas.

Artículo 13. *Edificios e instalaciones fuera de Ordenación.*

En el ámbito delimitado para este nuevo sector urbanizable industrial, no existe ninguna edificación ni instalación vista o aérea, por lo que en principio no existe ni se propone ningún «Fuera de Ordenación»:

Artículo 14. *Parcelaciones.*

El objetivo urbanístico establecido en el documento de Modificación de Normas Subsidiarias de Ikaztegieta para la creación de este nuevo sector urbanizable industrial P-2-Benta, era el de posibilitar los desarrollos complementarios de las empresas ubicadas en la zona 19 de Legorreta e imposibles de ejecutar en la misma.

Dentro de su objetivo urbanístico, el objetivo empresarial de Eredu, S. Coop., la obtención de un suelo Urbanizable que le posibilite las ampliaciones y crecimientos de sus actuales instalaciones en la zona 19 de Legorreta y justo enfrente de este nuevo sector industrial de Ikaztegieta, y con previsión de uso fundamentalmente dirigido al almacenaje de materias primas y productos manufacturados.

La edificación planteada en los distintos planos de ordenación de este plan parcial, responde tanto a las actuales necesidades de ampliación de Eredu, S. Coop., como a la topografía general del ámbito y a los retiros exigidos por la normativa sectorial que le afecta; por lo que se deduce que la parcela industrial privada propuesta, es única, no teniendo ningún sentido hablar o plantear parcelaciones distintas a la única propuesta como ampliación de Eredu, S. Coop.

Por dichas razones, la parcela mínima propuesta, coincide con la anterior parcela única propuesta; con independencia de que dentro de la misma, se puedan realizar variadas edificaciones de la misma propiedad.

4. KAPITULUA. HIRIGINTZA PROBETXAMENDUA ESLEITZEKO ERREGIMEN OROKORRA

15. artikulua. Hirigintza probetxamendua esleitzea.

Mugatutako banaketa-gune bakarrean (Alorrean bertan, alegia), proiektu honek zehaztaperen jakin batzuk ezarri ditu hirigintzako probetxamendua esleitzeko erregimena finkatzeko asmoz; besteak beste, honako xedaperen hauek finkatu ditu:

- Industriarako Alorraren azalera osoa: 20.983,00 m².
- Lur zati pribatuaren azalera: 18.840,61 m².
- Bideen jabari publikoa (GI-2131 errepidea): 2.142,39 m².
- Gehienez eraiki daitekeen edota solairu estalgarriaren gehiengo azalera: 6.123,20 m².
- Industri erabilerakoa: 6.123,20 m².
- Alorraren berariazko probetxamendua 6.123,20 m²: 18.840,61 m² = 0,325 m²/ekarpeneko lurzoru pribatuko m²-ko.
- Tipologiak eta neurketa-koefizienteak:
- Eraikuntzako erabilerak: Neurketa-koefizientea.
- Industri gunea: 1,00.

Oharra: Probetxamenduari buruzko baldintza horiek, hau da, gehienez eraiki daitekeen edota solairu estalgarriaren gehiengo azalerrari buruzko baldintza horiek, soil-soilik industri erabilerari aplikatu dakizkioke. Gizarte eta merkataritza arloko ekipamendurako gordetako lur zatia okupatu edo bertan eraikuntzarik egingo balitz, ondorio hauetarakoez litzateke konputatuko, ekipamendu horrek izaera publikoa baitu eta, hor-taz, ez baita pribatizagarria.

HIRUGARREN IDAZPURUA

ERABILERA ETA ERAIKUNTZA ORDENANTZAK

1. KAPITULUA. INDUSTRI ERABILERA KO LUR ZATIAK

1. ATALA. Eraikuntza baldintzak Probetxamendua eta bolumena

16. artikulua. Baldintza orokorrak.

Industri erabilerako lur zatian garatzen diren eraikuntzek, proiektu honetako ordenantzetan eta antolamendu planoetan zehaztuta dauden eraikuntza, probetxamendu eta bolumen baldintza orokorrak bete beharko dituzte, bakoitzaren ezaugarri tauletan ezarrita daudenak bezalaxe.

17. artikulua. Probetxamenduari buruzko baldintzak.

Eraikinetako solairu eta oinarri guztietan, bai produkzioari bai bulegoetara zuzendutako guztietan eta, halakorik balego, instalazio bereziak hartuko dituzten eraikinetan eraikitako azalaren batuketak osatuko du alor honetako probetxamendu konputagarria.

Aparkamendurako bakar-bakarrik erabiliko diren sotoak eta erdisotoak aldiz, ez dira konputu horren barruan sartuko baldin eta aparkaleku horiek eraikuntzarik gabeko eremuetan ezartzea ezinezkoa bada eta aurrez ezarrita dagoen estandarra betetzeko beharrezkoak badira.

Industriarako lurzatiaren garatzen diren eraikinetan, «Zonakatzeari eta erabilera xehekatuari» eta «Antolamendu Orokorra» planoetan xedatuta dauden lerrokatutara egokituko dira.

CAPITULO 4. REGIMEN GENERAL DE ASIGNACION DEL APROVECHAMIENTO URBANISTICO

Artículo 15. Asignación del aprovechamiento urbanístico.

En la única Area de reparto delimitada (el propio sector), el presente proyecto establece las determinaciones correspondientes a los efectos de la definición del régimen de asignación del aprovechamiento urbanístico, y dentro de él se establecen las siguientes determinaciones:

- Superficie total del Sector Industrial: 20.983,00 m².
- Superficie de propiedad privada: 18.840,61 m².
- Dominio público viario (carretera GI-2131): 2.142,39 m².
- Superficie máxima edificable o techo edificable 6.123,20 m².
- De uso industrial: 6.123,20 m².
- Aprovechamiento tipo del Sector 6.123,20 m²: 18.840,61 m² = 0,325 m²/m² del suelo privado aportado.
- Tipologías y coeficientes de ponderación:
- Usos constructivos Coeficiente de ponderación.
- Industrial: 1,00.

Nota: Las anteriores condiciones de aprovechamiento, es decir, la superficie máxima edificable o techo edificable, se refiere exclusivamente al uso industrial. La posible ocupación y edificabilidad en la parcela de reserva para Equipamiento Social y Comercial, al ser de carácter público no privatizable, se considera no computable a dichos efectos.

TITULO TERCERO

ORDENANZAS DE USO Y EDIFICACION

CAPITULO 1. PARCELAS DE USO INDUSTRIAL

SECCION 1.ª Condiciones de edificación Aprovechamiento y volumen

Artículo 16. Condiciones generales.

Las construcciones que se desarrollen en la parcela de uso industrial, se ajustarán en cuanto a sus condiciones generales de edificación, aprovechamiento y volumen a lo especificado en las Ordenanzas y Planos de Ordenación del presente proyecto, así como a lo establecido en el correspondiente cuadro de características.

Artículo 17. Condiciones de aprovechamiento.

El aprovechamiento computable estará constituido por la suma de la totalidad de las superficies construidas en todas las plantas y entreplantas de las edificaciones, sean de producción o de oficinas; así como de las edificaciones de instalaciones especiales en su caso.

Se exceptúa de tal cómputo, la superficie de sótano o semi-sótano con dedicación exclusiva de aparcamiento, cuyas plazas no puedan situarse en los espacios libres de edificación, y que sean necesarias para obtener el estándar establecido.

En la parcela industrial, las construcciones deberán adecuarse a las alineaciones de edificación establecidas en Planos de «Zonificación y usos pormenorizados», y de «Ordenación General».

Eraikinaren gehieneko ingurakaria lerrokadura horiek zehazten dute, ezarritako altuera eta profil baldintzekin batera. Eraikuntzek, edonola ere, aurrez ezarrita dauden mugak errespetatu beharko dituzte gehieneko okupazioari, solairu kopuruari eta solairu estalgarriari dagokienez.

Antolamendu plano desberdinetan proposatutako eraikuntzak Eredu S. Coop. enpresaren gaur egungo premiei erantzutea du helburu eta horiek, egiazta daitekeen moduan, ez ditu inondik ere agortzen Arauen Aldaketak onartzen dituen okupazio eta eraikigarritasun aukerak. Beraz, esan behar da antolaketa horrek izaera orientagarria duela besterik gabe; hau da, ez du inolako balio arautzailerik, ordenantza hauetan berariaz xedatutakoa izan ezik.

Proposatu den lur zati industrialarekin muga egiten duten eremuak izaera desberdinekoak direnez, eta Gipuzkoako Errepideen eta Bideen Foru Arauak, 1994ko azaroaren 25eko 17/94 Foru Arauak ezarritako atzeraemanguneak errespetatu behar direnez, eraikuntzek honako distantzia hauek utziko dituzte:

— Gutxienez 50 metro, autobiaaren galtzadako kanpoaldeko mugara (lerro zuria), N-1 errepidearen (lehentasuneko errepidearen sare gorria) bidezubian.

— Gutxienez 18 metro, Ordiziatik Alegiarako GI-2131 errepidearen (eskualde mailako errepidearen sare berdea) galtzadako kanpoaldeko mugara (lerro zuria).

— Gutxienez 5 metro, industriarako lur zatiaren beraren gainerako mugetara, bai lurzoru hiritarrezinarekiko mugetara, baita jabari eta erabilera publikoko espazio libreen (lorategiak) sistema lokalarekiko mugetara ere.

GI-2131 errepidearen (Ikaztegieta-Legorreta noranzkoan) lerro zuritik arestian aipatutako 18 metroko tartea utzita, eroso betetzen da Euskal Autonomia Erkidegoko ibai ertzak eta erreka ertzak antolatzeke Lurralde Plan Sektorialak agintzen duen betekizuna, esparruko IV tramitazio hidraulikorako 26 metroko tarte ezartzen duena; eta hirigintzako garapen berriak har ditzaketen «esparruetarako» ertzai buruzko berariazko araudia. Izan ere, Errepideen foru arauak eskatutako 18 metro horiei, zabalduko errepidearen zabalera erantsi behar zaio batetik, eta errepidearen eta Oria ibaiaren artean Alorraren esparruan geratzen den eremua, bestetik.

Industri erabilerrako lur zati pribatuen barruan dauden eta eraikuntzarik gabekotzat jo diren eremuetan, hala nola benetan egiten diren eraikuntzek hartuko ez dituzten eremuetan, soil-soilik honako hauek ezarri ahal izango dira: Instalazioen elementuak, zerbitzuen azpiegitura zentroak, deposituak eta teilape arinak, itxi gabeak eta behin-behinekoak, aparkatutako ibilgailuak babesteko helburua dutenak. Horiek guztiak ez dira aintzat hartuko gehieneko eraikuntza probetxamendua konputatzerakoan.

Bide publikoekin muga egiten duten zonetan, edota erabilera publikoko zorpena duten eremuetan, beharrezko zorpenak ezarriko dira Alorreko instalazioak eta azpiegiturak bertatik igaro daitezkeen.

Industri erabilerrako lur zati pribatuaren mugei dagokienez, hala nola lur zatiaren azalerari, gehieneko okupa daitekeen azalerari, eraikigarritasunari, gehieneko solairu estalgarriari edota gutxienezko lur zatia zehazteari dagokienez, ordenantza hauetako Memoriako ezaugarrien tauletan eta «Zonakatzea eta erabilera xehekatua» planoan ezarritakora joko da.

Proposatutako eraikuntzarako zehaztu diren datuak orientagarriak baino ez dira; beraz, ez dute inolako balio arautzailerik, okupazioari eta erabilerrari buruzko aukera jakin bati erantzuten baitiote.

Dichas alineaciones máximas, junto con las condiciones de altura y perfil de las edificaciones establecidas, definen la envolvente máxima de las edificaciones. En cualquier caso las edificaciones deberán respetar la ocupación máxima, número de plantas y techo edificable establecidos.

La edificación planteada en los distintos planos de ordenación, responden a las actuales necesidades planteadas por Eredu, S. coop, que como se puede comprobar, están muy lejos de agotar las posibilidades de ocupación y edificabilidad permitidas por la Modificación de Normas, por lo que es preciso considerar, que tal ordenación de la edificación tiene un carácter orientativo, y por tanto sin ningún valor normativo, salvo lo específicamente determinado por estas Ordenanzas.

Dado el distinto carácter de las áreas de colindancia de la parcela industrial propuesta; así como de las exigencias de retiro que se derivan de la Norma Foral 17/1994 de 25 de noviembre de Carreteras y Caminos de Gipuzkoa, se establecen las siguientes separaciones de las edificaciones:

— Mayor o igual a 50 m. respecto del límite exterior de la calzada (línea blanca) de la Autovía en viaducto de la N-1 (carretera de interés preferente-red roja).

— Mayor o igual a 18 metros respecto del límite exterior de la calzada (línea blanca) de la carretera GI-2131 de Ordizia a Alegia (carretera de la red comarcal-red verde).

— Mayor o igual a 5 metros respecto del resto de límites de su propia parcela industrial, tanto en su colindancia con el suelo no urbanizable como con el Sistema Local de Espacios Libres de dominio y uso público (jardines) propuesto.

Con la anterior separación de 18 metros de la línea blanca de la carretera GI-2131 (sentido Ikaztegieta-Legorreta), se cumple holgadamente con la exigencia derivada del Plan Territorial Sectorial de Ordenación de Márgenes de los Ríos y Arroyos de la Comunidad Autónoma del País Vasco, de 26 metros para la tramitación hidráulica IV del ámbito y la normativa específica para márgenes en «ámbitos» con potencial de nuevos desarrollos urbanísticos; dado que a dichos 18 metros exigidos por la Norma Foral de Carreteras, se le añaden, tanto el ancho de la carretera ampliada, como del espacio entre la carretera y el río Oria a su paso por el ámbito.

En las partes de las parcelas industriales privadas, que se califican de libres de edificación, y en las no ocupadas por las edificaciones que realmente se ejecuten, se autorizarán exclusivamente, al implantación de elementos de instalaciones, centros de infraestructuras de servicios, depósitos y tejavanos o cubiertas ligeras de protección de los vehículos aparcados y con carácter de no cerradas ni permanentes, y que no serán computables a los efectos de limitación del aprovechamiento edificatorio.

En las zonas limítrofes con la vialidad pública, o privada con servidumbre de uso público, se establece, si fuese necesario, la servidumbre de paso de instalaciones e infraestructuras de servicios del sector.

La delimitación de la parcela industrial privada, así como su superficie de parcela, superficie y porcentaje máximo de ocupación, edificabilidad o techo edificable máximo, y definición de parcela mínima, son las establecidas por los Cuadros de Características tanto de la Memoria, de estas Ordenanzas, y del Plano de Zonificación y usos pormenorizados.

Los datos especificados para la edificación planteada, tienen un carácter orientativo y por tanto, sin ningún valor normativo, al responder exclusivamente a una específica alternativa de ocupación y uso.

18. artikulua. Eraikuntza baldintzak.

Eraikuntza proiektua erredaktatu aurretik Alorraren azterketa geoteknikoa egin beharko da eta horretan zehaztuko dira bai okupatu beharreko lursailaren ezaugarriak baita etorkizuneko eraikuntzak egiterakoan zimentuei eta lurketei buruz ezarri beharreko baldintzak ere.

Lurzoru hiritartuan, industriarako lur zatian garatuko diren eraikinek izango dituzten sestrak eta mailak, hiritartze obren proiektuan zehaztuko dira behin betiko. Sestra horiek, antolamendu planoetan orientagarri gisa finkatuta dauden erreferentzia mailetatik abiatuta neurtuko dira. Eraikuntzarik gabe geratuko diren erabilera pribatuko lur zatien perimetroko sestrak eta mailak, aurrez aurre dituzten bide publikoen edo pribatuen sestra berak izango dira.

Industriarako eraikuntzak izango dituen erabilera nagusiak edo lehentasunezkoak aintzat harturik —industria/produktzioa edo industria/bulegoak—, bi profil mota ezarri dira.

Horrela bada, industria/produktziorako eraikinek honako profila izango dute gehienez: Behe solairua (BS) + oinartea. Dena den, bestelako irtenbideak ere onartuko dira; esate baterako, solairu bakarra, behe solairua gehi oinartea edo goitegia, zati batean.

Industria/bulegoetarako eraikinek, berriz, hiru solairuko profila izango dute gehienez (BS+2).

Bi kasuetan, —industria/produktzioa edo industria/bulegoak— guztira 10 metroko altuera izango dute gehienez. Altuera hori, eraikuntzaren batez besteko puntuan neurtuko da, hirigintza sestratik hasi eta estalkiari eusten dion zinzria, habe edo egiturazko elementuaren behealderaino.

Aparteko kasuetan, funtzionamendu egokia bermatzeko teknikoki hala eskatzen duten eraikin edota instalazioetan, Udalak altuera handiagoa ere onar dezake baldin eta premia hori, aldeaz aurretik, behar bezala arazoitzen bada.

Era berean, industriarako erabiliko den eremuaren lurpean, sotoa edo erdisotoa eraiki ahal izango da, soil-soilik industriaren erabilera lagungarri edo osagarri gisa; hau da, aparkalekuak, biltegiak, komun edo aldagelak, instalazioak eta antzekoak ezartzeko.

Industria produktziorako erabiliko diren eta solairu bat baino gehiago dituzten eraikinetan edo eraikin-zatietan, zorutik sabaira 4 metroko altuera izango da gutxienez. Altuera hori, dena den, 2,50 metrora murriztu ahal izango da industria-bulegoen kasuan.

Industria/produktzioa aldaerako eremuetan eraikitzen diren oinarre edo goitegiek, zerbitzatzen duten lokalaren gehienez %30 okupatu ahal izango dute oinean. Aldiz, industria/bulegoak aldaeran, goi solairuetan bulegorako erabiltzen den behe solairuaren azalera osoa okupatu ahal izango da.

Industri produktzioaren erabilera osagarri edo lagungarrietarako eremuetan, hau da, biltegi, instalazio, komun, aldagela eta antzekoetan, zorutik sabairako gutxienezko altuera 2,25 metrora murriztu ahal izango da, baldin eta pertsonak luzaroan bertan egon behar ez badute.

Gorago aipatu den lur zati eraikigarri edo okupagarri horren barruan, eraikinen osaketa arkitektonikoa eta bolumetria nahi bezalakoak izan daitezke, baldin eta industriarako eraikin desberdinentzako ezarri diren gehieneko profil eta altuera baldintzak betetzen badira eta, betiere, gehieneko okupazio eta eraikigarritasun baldintzak errespetatzen badira.

Lur zati eraikigarri edo okupagarriaren muga gaindituz hegalkin irekiak edota itxiak onartuko dira, gehienez ere metro 1 kanporatzen badira eta fatxadaren luzeraren %50etik gora

Artículo 18. Condiciones de edificación.

Previamente a la realización del proyecto de edificación, se deberá realizar un estudio geotécnico del área, que defina las características de los suelos de ocupación, así como las condiciones que deben establecerse a las cimentaciones y movimientos de tierras para las futuras edificaciones.

Las rasantes y niveles de apoyo de las edificaciones de la parcela industrial en el terreno urbanizado, serán definitivamente determinadas por el Proyecto de Urbanización, a partir de los niveles de referencia (con carácter orientativo) establecidos en los planos de ordenación. La parcela privada libre de edificación, mantendrá en su perímetro, las rasantes y niveles de los viales públicos o privados con servidumbre de uso público al que dan frente.

Se establecen dos tipos de perfiles de edificación industrial, según su uso más característico o dominante, sea industrial-productivo, o industrial-oficinas.

Para las edificaciones industrial-productivo, el perfil máximo autorizado será de PB+Entreplanta (Planta baja más entreplanta), admitiéndose soluciones tanto de una única planta, como de planta baja más entreplanta o altillo sobre parte de ella.

Para las edificaciones industrial-oficinas, el perfil máximo será de tres plantas (PB+2).

En ambos casos, industrial-productivo e industrial-oficinas la altura máxima total será de 10 m, medidos desde la rasante de la urbanización en el punto medio de la edificación, y hasta la parte inferior de las cerchas, vigas o elemento estructural que soporta su cubierta.

Excepcionalmente, y previa justificación de su necesidad, el Ayuntamiento podrá admitir mayor altura de edificación, para edificaciones y/o instalaciones que técnicamente así lo exijan para su correcto funcionamiento.

Igualmente, y bajo la rasante de la ocupación industrial, se admitirá una planta de sótano o semisótano, que en cualquier caso tendrá un uso auxiliar o complementario al industrial, como aparcamientos, almacenes, aseos-vestuarios e instalaciones.

En las edificaciones o partes de la edificación que tengan más de una planta y que tengan un uso industrial-productivo, la altura mínima suelo-techo será de 4 m; pudiendo reducirse a 2,50 m cuando su uso sea de industrial-oficinas.

Las entreplantas o altillos que se realicen en áreas de industrial-productivo, podrán tener una ocupación máxima en planta, del 30% del local al que dan servicio; mientras que en uso de industrial-oficinas, sus distintas plantas altas podrán ocupar la totalidad de la planta baja de tal uso de oficina.

En los específicos usos de almacenes, instalaciones, aseos, vestuarios, u otros de carácter auxiliar o complementario al industrial-productivo o industrial-oficinas, y que no supongan una continua permanencia de personas, la altura mínima suelo-techo podrá reducirse hasta los 2,25 m.

Dentro de la delimitación de la parcela edificable u ocupable anteriormente definida, y con las limitaciones de perfil y altura máximas para las distintas edificaciones industriales, y en cualquier caso con las limitaciones de la ocupación y edificabilidad máximas definidas, la composición arquitectónica y volumetría de las edificaciones es totalmente libre.

Sobre la delimitación de la parcela edificable u ocupable, se admitirán vuelos abiertos y/o cerrados, con un saliente máximo de 1 metro, limitados al 50% de la correspondiente longitud de

hartzen ez badute. Hegalkin horiek, gutxienez 3 metroko altuera libre utziko dute lursail hiritartuaren sestratik gora eta, beren azalera, gehieneko azalera eraikigarriaren edo solairu estalgarriaren barruan konputatuko da.

Era berean, markesinak, teilegalak edota eraikinaren gainlurreko erlaitzak onartuko dira, baldin eta, gehienez ere metro 1 kanporatzen badira eta, lursail hiritartuaren sestratik gora, gutxienez 3 metroko altuera libre uzten badute. Elementu hauek, ordea, fatxadaren luzera osoa hartu ahal izango dute.

Aipatutako altuera horiek gaudituz, egiturazko elementuak, ekipo industrialen instalazioak edota eraikinen estaldurak beharrezkoak dituenak bakarrik onartuko dira; inolaz ere ez, ordea, probetxamendu gisa har daitekeen lantoki, bulego, biltegi, aldagela edo zerbitzurik.

2. ATALA. Erabilera baldintzak

19. artikulua. Baldintza orokorrak.

1. Erabilerak:

— Erabilera nagusia:

— Industria. Edozein eratako industriak onartuko dira, jarduera gogaikarri, osasunkaitz, kaltegarri eta arriskutsuen erregelamenduan arriskutsu gisa sailkatutakoak izan ezik.

— Erabilera bateragarriak:

— Merkataritza, baina industriak garatzen duen jarduerarekin zuzen-zuzenean lotutako merkataritza erabilerak bakarrik onartuko dira.

— Bulegoak. Erabilera industrial nagusiaren lan administratiboak egiteko lokalak bakarrik onartuko dira, baldin eta horien egiteko nagusia ez bada jendeari zuzenean zerbitzuak ematea.

— Etxebizitza. Industriaren zerbitzurako familia bakarreko etxebizitza bakarrik onartuko da, hau da, industria nagusiaren jagoletza edo zaintzara zuzendua.

— Erabilera debekatuak:

— Gainerakoak.

2. Industri erabilerako eraikinetan sotoa eginez gero, soil-soilik aparkalekurako edota produkzio zein bulego aldaerako industriaren erabilera lagungarri edo osagarriak ezartzeko erabiliko da, hau da, bulegoak, instalazioak, komun edo aldagelak ezartzeko, betiere pertsonak luzaroan bertan egitea eskatzen ez badute.

3. Lur zati eraikiezinak eta lur zati eraikigarriaren barruan benetan eraikuntzarik hartuko ez duten eremuak honako erabilera hauetara bideratuko dira: Ibilgailuen eta oinezkoen zirkulaziorako bide pribatuak, aparkalekuak, aire zabaleko biltegiak, berdeguneak, lorategiak, eta baita lurperatutako edo lur gaineko depositu eta instalazioak ezartzeko ere. Baina, beharrezko den kasuetan, bide publikoen nahiz erabilera publiko zorpena duten bide pribatuen mugako eremuan, alorraren zerbitzurako instalazioen eta azpiegituren pasabiderako zorpena ezarriko da.

3. ATALA. Bizigarritasun baldintzak eta Ingurumenaren defentsa

20. artikulua. Baldintza orokorrak.

Alorreko Plan honen babesean garatzen diren eraikin eta industriarako instalazio guztiak, eraikitzeke onean indarrean dagoen araudi orokorrak eta gaian eskumena duten erakundeek agintzen dituzten baldintzak beteko dituzte eraikinen bizigarritasunari eta segurtasunari hala nola ingurumenaren defentsari dagokionez.

fachada, con una altura libre mínima de 3 metros sobre la rasante de la urbanización, y en cualquier caso, computando a los efectos de limitación de superficie máxima edificable o techo edificable.

Igualmente, se admitirán marquesinas y aleros o cornisas de coronación de las edificaciones, con la misma limitación de saliente máximo de 1 metro, con altura libre mínima de 3 metros sobre la rasante de urbanización, y en este caso, pudiendo extenderse a toda la longitud de su correspondiente fachada.

Sobre las alturas anteriormente definidas, solo se admitirán elementos estructurales, de instalaciones de equipos industriales y de la propia cubierta de la edificación, sin que puedan existir otro tipo de aprovechamientos, como puedan ser los locales de trabajo, de oficinas, almacenes, vestuarios o servicios.

SECCION 2.ª Condiciones de uso

Artículo 19. Condiciones generales.

1. Usos:

— Uso predominante:

— Uso industrial, permitiéndose la instalación de cualquier tipo de industrias, con excepción de las clasificadas como peligrosas en el Reglamento de Actividades Molestas, Insalubres, Nocivas y Peligrosas.

— Usos compatibles:

— Uso comercial, admitiéndose únicamente lo usos comerciales directamente ligados con la actividad que se desarrolla en la industria.

— Uso oficina, admitiéndose únicamente los usos de oficina destinadas a la ejecución de labores administrativas de la industria predominante; sin que su objeto principal se la prestación directa de servicio al público.

— Uso vivienda, admitiéndose únicamente el uso de vivienda unifamiliar de servicio, es decir dedicada a la función de guarda o vigilancia de la industria predominante.

— Usos prohibidos:

— El resto.

2. El posible sótano de las distintas edificaciones de uso industrial, se destinará exclusivamente a usos de aparcamiento y/o a usos auxiliares o complementarios a la industria –producción o industrial– oficinas, como almacenes, instalaciones, aseos y vestuarios, y siempre que no supongan una estancia prolongada de personas.

3. Las superficies de parcela no edificable, y las que quedan libres de la ocupación realmente ejecutada en la parcela edificable, se destinaran fundamentalmente a la vialidad rodada -peatonal privada, aparcamientos, almacenaje al aire libre, zonas verdes, ajardinadas, etc., admitiéndose depósitos e instalaciones enterradas o de superficie; y en su caso y si fuese necesario, tendrán en la zona limítrofe con la vialidad pública o privada con servidumbre de uso público, la servidumbre de paso de instalaciones e infraestructuras de servicios del sector.

SECCION 3.ª Condiciones de Habitabilidad y Defensa del Medio Ambiente

Artículo 20. Condiciones generales.

Las construcciones e instalaciones industriales que se desarrollen al amparo del presente Plan Parcial, deberán cumplir con las condiciones de habitabilidad, seguridad y defensa del medio ambiente exigidas por la Normativa General y las disposiciones de los Organismos competentes aplicables en el momento de su ejecución.

21. artikulua. Bizigarritasun baldintzak.

1. Baldintza orokorrak:

Honako Alorreko Plan honen babesean industriarako egiten diren eraikin guztiek, gaur egun Ikaztegietan indarrean dauden Hiri Antolaketako Arauetan jasota dauden ordenantza orokorretan ezarrita dauden bizigarritasun baldintza orokor guztiak beteko dituzte, eraikitzeiko momentuan aplikagarri zaizkion eta erakunde eskudunek agindutako xedapen guztiak bezalaxe.

2. Gutxieneko altuera libreak:

Industriako produkziarako bideratuko den lokal industrial orok zorutik sabaira 4 metroko altuera librea utziko du gutxienez. Produkzioko bulegoen geletan, zorutik sabaira 2,50 metroko altuera librea izango da gutxienez, bulego, administrazio, erakusketa eta antzerako erabileretara bideratutako aretoetan bezalaxe.

Aparkalekurako eremu lagungarrietan, aldageletan, komunitetan, biltegietan, jarduera nagusiaren zerbitzurako instalazioetan eta pertsonak luzaroan bertan egon beharrik ez duten gainerrako guneetan, gutxienez 2,25 metroko altuera librea bermatuko da. Hala ere, aparteko kasuetan, gutxieneko altuera libre hori 2 metrora murriztu ahal izango da habeen edo egiturazko elementuen azpian edota instalazioen pasabiderako guneetan.

3. Argiteria eta aireztapena:

Jardueraren bat burutzeko erabiltzen diren lokal guztiek argiztapen eta aireztapen naturala izango dute, beharrezkoa denean artifizialez lagundua.

Argiztapen eta aireztapen lagungarri edo artifizialerako sistema ezarriko bada, teknikari eskudunak bidezko proiektu xehatuak egin beharko ditu, Udalak onartutako eraikuntza proiektuaren osagarri edo eranskin gisa. Sistema hori, edozein kasutan ere, ikuskatu egin beharko da lokala ireki edo jarduera martxan jarri aurretik.

Aparkalekuak, biltegiak, komunak, aldagelak, instalazioak eta antzeko erabilera lagungarri edo osagarriak hartuko dituzten lokaletan, argiztapen eta aireztapen sistema artifizialak bakarrik ezartzea onartuko da.

4. Segurtasuna:

Erortzeko arriskua ekar dezaketen bao, leiho estalkirako irteera eta antzeko elementu guztiek, sor ditzaketen arrisku bereziei dagozkien neurriak beharko dituzte eta, baoen kasuan, karel edo baranda batez babesturik egongo dira, eta horrek gutxienez metro bateko altuera izango du.

Alorreko Plan honen babesean garatzen diren eraikin industrial guztiek oro har aplikatzekoa den segurtasun eta babes araudiak agintzen dituen betekizun funtzional eta eraikuntzakoak beteko dituzte; bereziki, eraikin industrialetako suteen aurkako erregelamendua, RD 2.267/2004 Errege Dekretua, goi eta behe-tentsioko araudi elektroteknikoak, eta jarduera bakoitzari buruz indarrean dagoen legeria.

5. Higiene baldintzak:

Industriarako eraikin guztiek, «Laneko Segurtasun eta Higieneari» buruzko Araudian ezarrita dauden arau orokorrek agintzen dituzten higiene zerbitzuak beharko dituzte langileentzako. Hamar langiletik gorako enpresetan, gutxienez, ondorengo izango dute:

— Pertsona bakoitzeko 2 m²-ko aldagela eta komuna, gizonak eta emakumeak bereiziz.

— Konketa 1, jardunaldi berean lan egiten duten 10 pertsonako.

Artículo 21. Condiciones de habitabilidad.

1. Condiciones generales:

Los edificios destinados a uso industrial que se construyan al amparo del presente Plan Parcial cumplimentarán los requisitos generales de Habitabilidad señalados en las Ordenanzas Generales de las Normas Subsidiarias de Ikaztegieta, así como de las determinaciones de los organismos competentes en la materia, y que sean aplicables en el momento de su ejecución.

2. Alturas libres mínimas:

La altura libre mínima suelo-techo de cualquier local destinado a la actividad industrial-productiva será de 4 metros. En las dependencias de oficinas de producción, así como las generales dedicadas a industrial-oficinas, administración, exposiciones y similares, la altura libre mínima suelo-techo será de 2,50 m.

Los espacios auxiliares de aparcamientos, vestuarios, aseos, almacenes e instalaciones al servicio de la actividad principal, y que no supongan una estancia permanente o prolongada de personas, tendrán una altura libre mínima de 2,25 metros; que excepcionalmente y de forma puntual, podrá reducirse a 2 metros en situaciones de descuelgue de vigas y/o elementos estructurales, como de paso de instalaciones.

3. Iluminación y ventilación:

Todos los locales en los que se realice cualquier tipo de trabajo tendrán iluminación y ventilación naturales, ayudados o apoyados por las artificiales si fuese necesario.

El sistema de ventilación e iluminación auxiliares o artificiales en su caso, serán objeto de redacción del proyecto o proyectos correspondientes, por un facultativo competente en la materia, y como anejo o complemento al proyecto de ejecución de la edificación, aprobado por el Ayuntamiento, y sujetos a revisión antes de la apertura del local o de su actividad.

Los locales auxiliares o complementarios como aparcamientos, almacenes, aseos, vestuarios, instalaciones y similares podrán disponer de sistemas de iluminación-ventilación, exclusivamente de tipo artificial.

4. Seguridad:

Todos los huecos, ventanas, salidas a cubiertas u otros elementos similares, y que puedan representar algún riesgo de caída, tendrán las medidas de seguridad necesarias en función del riesgo específico, y en el caso de huecos, con antepechos o barandillas con 1 metro de altura mínima.

En cualquier caso, las edificaciones industriales que se ejecuten al amparo del presente Plan Parcial, cumplirán los requisitos funcionales y constructivos exigidos por la Normativa General existente en el momento de su ejecución, en materia de Seguridad y Protección, y muy particularmente, el Reglamento de Seguridad contra Incendios en los Edificios industriales RD 2.267/2004, los Reglamentos Electrotécnicos de Alta y Baja Tensión y la vigente legislación sobre Actividades.

5. Condiciones higiénicas:

Las edificaciones industriales dispondrán para su personal de los servicios de higiene fijados por las Normas Generales sobre «Seguridad e Higiene en el Trabajo», y sus normas y reglamentos de desarrollo, y que serán como mínimo y para empresas de más de diez trabajadores, los siguientes:

— 2 m² de vestuarios y sanitarios por persona, con separación de sexos.

— 1 lavabo por cada 10 personas que coincidan en la misma jornada laboral.

— Konketa 1, jardunaldi berean lan egiten duten 25 gizonen; eta beste bat, 15 emakumeen.

10 langilera iristen ez diren enpresek komun bat eta konketa bat izango dute gutxienez.

Multzo bat osatzen duten lokaletako higie-ne zerbitzuak elkartu daitezke.

Higie-ne zerbitzu horien aireztapen eta argiztapen sistema Hiri Antolaketako Arauen ordenantza orokorretan etxebizitzeko komun eta bainugeletarako aurreikusitako sistemetakoa izango da.

Komun eta higie-ne zerbitzuetako ur zikinen isurketa, aparatu bakoitzean itxitura hidraulikoz hornitutako hustubideaz bermatuko da.

Udal zerbitzuak, industriak sortutako hondakin solidoak ezin baditu jaso, zabortege egoki batera eraman beharko dira zuzenean, jardueraren titularraren kontura.

6. Ingurumenaren defentsa:

Ur hustuketarako sistema banantzailea izango da kasu guztietan, hau da, hoderia bat euri urentzako eta beste bat ur beltzak edo hondakin urak biltzeko.

Euri uren sareari dagokionez, Oria ibaira isuri aurretik, arreta berezia jarriko zaio esekita dauden eta Oria ibaiko ura, edo lurpeko urak edo alorrean izan daitezkeen akuiferoak kutsa ditzaketen solido, koipe, lohi edo beste elementuen bananketari.

Jardueraren prozesuko hondakin urak aparte bilduko dira eta, saneamendu sare orokorrekarekin bat egin aurretik, kontrolerako kutxeta bat jarriko da laginak hartzeko eta emariak neurtzeko. Era berean, beharrezko den kasuetan, isurketa egin aurretik ura arazteko edo tratatzeko sistemaren bat ezarriko da, kasuan kasuko isurketari dagokion baldintzen arabera.

Eraikinetako ur beltzak eta hondakin urak sare batean bildu eta kolektorera eramango dira zuzenean; bestela, laster eraikiko den Oria erdialdeko interzeptagailura bideratuko dira.

Hiritartze proiektuek eta eraikuntza proiektuek, halakorik balego, Ikaztegiatan indarrean dauden Hiri Antolaketako Arauek Kuturru industrialderako (p-1 Kuturru) finkatutako isurketa baldintzak eta kutsatzaileen nahiz hondakin solidoen tratamendu eskakizunak bete beharko dituzte.

Edozein kasutan ere, saneamendu, arazketa, isurketa eta ingurumenaren babes gaitan lerrun handiagoa duten eta eraikitzean ulean indarrean dauden araudi orokor guztiek agintzen dituzten baldintza guztiak bete beharko dira.

Azkenik, eta bereziki, ingurumen eraginaren ebaluaketa bateratuari buruzko azterlanaren «behin betiko ingurumen txostenaren» arabera aplikagarriak diren xedapenak bete beharko dira.

4. ATALA. Eraikuntzaren kalitatea eta instalazioen funtzionaltasuna

22. artikulua. Baldintza orokorrak.

Alorreko Plan honen babesean garatzen diren eta industriarabileretara bideratuko diren eraikin guztiek, Ikaztegiatan indarrean dauden Hiri Antolaketako Arauetan jasotako araudi orokorrak agindutakoa beteko dute eraikuntzaren kalitateari eta instalazioen funtzionaltasunari dagokionez.

— 1 inodoro por cada 25 hombres y otro por cada 15 mujeres que coincidan en la misma jornada laboral.

Para empresas con menos de 10 trabajadores se exigirán, como mínimo, un inodoro y un lavabo.

Los servicios sanitarios de varios locales que formen un conjunto, podrán agruparse.

Su sistema de iluminación y ventilación, será alguno de los previstos para baños y aseos de las viviendas, y descritas por las Ordenanzas Generales de las Normas Subsidiarias de Planeamiento.

La evacuación de aguas sucias de los aseos y servicios quedará garantizada por desagüe de cierre hidráulico en cada aparato.

Si los residuos de basuras que produzca la industria no pudieran ser recogidos por el correspondiente servicio municipal, deberán ser trasladados directamente a algún vertedero idóneo, y por cuenta del titular de la Actividad.

6. Defensa del Medio Ambiente:

El sistema de evacuación de aguas será en cualquier caso de tipo separativo, es decir, recogiendo independientemente las aguas pluviales por una parte y las aguas fecales o residuales por otra.

En la red de aguas pluviales, y previamente a su vertido al cauce del río Oria, se vigilará de forma especial, la separación de sólidos en suspensión, grasas, lodos u otros elementos, que pudiesen contaminar las aguas del río Oria, o las aguas subterráneas y/o acuíferos que puedan existir en el ámbito del sector.

Las aguas provenientes de los procesos industriales, se recogerán independientemente, y previamente a su conexión a la red de saneamiento, se instalará una arqueta de control para la toma de muestras y medición de caudales, y en su caso, se procederá a una previa depuración o pretratamiento, según las condiciones de vertido que le sean exigibles.

Las aguas fecales y residuales de las edificaciones, conformarán una red que será conducida directamente al colector o interceptor del Oría medio de próxima construcción.

Los proyectos de urbanización, y en su caso, los de edificación, deberán atender a las condiciones de vertido y tratamientos de contaminantes y residuos sólidos especificados por las vigentes Normas Subsidiarias de Planeamiento de Ikaztegieta para el polígono industrial de Kuturru (p-1-Kuturru).

En cualquier caso, se atenderá a las determinaciones de cualquier Norma de carácter general y rango superior en materias de saneamiento, depuración, vertido y defensa del Medio Ambiente que le sea de aplicación en el momento de su ejecución.

Por último y muy especialmente, se atenderá a las determinaciones que resulten de aplicación según el «Informe definitivo de impacto ambiental» del correspondiente Estudio de Evaluación Conjunta de Impacto Ambiental.

SECCION 4.ª Calidad constructiva y funcionalidad de las instalaciones

Artículo 22. Condiciones generales.

Los edificios destinados a usos industriales que se construyan al amparo del presente Plan Parcial, cumplimentarán los requisitos de calidad constructiva y funcionalidad de las instalaciones exigibles según la Normativa General de las Normas Subsidiarias de Planeamiento de Ikaztegieta.

23. artikulua. Baldintza partikularrak.

1. Saneamendurako instalazioak:

Industriarako lur zati bakoitzaren barruko saneamendu sarea banantzailea izango da derrigorrez; hau da, euri urak bilduko ditu alde batetik, eta ur beltzak edo hondakin urak bestetik.

Euri uren saneamendurako sare orokorra estalkietako euri urak eta eraikuntzarik gabe geratzen diren espazio pribatuetako, hau da, hirigintza pribatu osagarriko lur gaineko euri urak bilzeko bakar-bakarrik erabiliko da.

Ur beltzen eta hondakin uren saneamenduko sare orokorrak hondakin ur edo ur beltz horiek bakar-bakarrik bilduko ditu eta Ikaztegiatako Hiri Antolaketako Arauetan jasota dagoen araudi orokorrak finkatutako eskakizunak beteko ditu, kolektorera isuri aurretik edota, errepidearen beste aldean, errepidearen eta Oria ibaiaren artean, laster eraikiko den Oria erdialdeko interzeptorera isurketa egin aurretik.

Erabiltzaile bakoitzaren kargurakoa izango dira araudi partikularreko betekizunei aurre egiteko, lur zati eta eraikin pribatuen barruan egin behar diren instalazioak eraikitzeak, horiek ustiatzeak eta mantentzeak sor ditzaketen gastuei erantzutea.

Jardueraren prozesuko hondakin urak sortzen dituzten industrietan kutxeta bat jarriko dute lur zatiko estolderiaren barne sareak sare orokorrarekin bat egiten duen tokian; edo bestela, industri jarduera independenteak izanez gero, lokalaren huste sareak barne sarearekin bat egiten duen puntuan. Kutxeta hori banantzailea izango da eta behar beste ekipatua, laginak hartzeko eta emaria neurtzeko.

Kutxeta horiek, udal zerbitzu teknikoen arau eta jarraibideak betez, eraikuntzetatik kanpo kokatuko dira, sarbide errazeko tokietan eta, ahal delarik, erabilera publikoko lurtean.

2. Gas jaurtiketak:

Industrien gas jaurtipenek «Atmosferaren babeserako Legeak» eta lege horren garapenerako arauak ezarritakoak bete beharko dute, gauzatzeko unean aplikagarri zaion legeriak ezarritako bezalaxe.

Hori horrela, industriarako instalazio guztiak behar besteko bitarteko eta sistemaz hornituta egongo dira, atmosferara jaurtitzeko dituzten gas, hauts, lurrin eta gainerako substantzia guztiak lege ezarritako gutxienezko mugak arte ezabatuko diren moduan.

3. Zaborrak eta hondakin solidoak:

Hondakin toxiko eta arriskutsuak ezin izango dira, inoiz, estolderia sare orokorraren edota zabor eta hondakin solidoen biltzaile komunitariarako sistemaren bidez hustu.

Era honetako hondakinen ekoizpen eta kudeaketan giza osasunaren babesa, ingurumenaren defentsa eta baliabide naturalen zaintza bermatzeko behar den oinarriko lege-erregimena, indarrean dagoen ingurumen legerian jasotakoa bera da.

Poligono berriak hartuko duen esparruan, industriako hondakinak «gaika biltzea» ahalbidetuko duen edukiontzi-gune bat prestatuko da.

4. Zaratak, bibrazioak eta usaina:

Era berean, industriako instalazio oro indarrean dagoen legeriak agintzen dituen sistema zuzentzaileez hornituko da, sortzen dituen usain, zarata edota bibrazioek bertan edo inguruan bizi diren edo lan egiten duten pertsonengan eragin ditzaketen kalteak arindu daitezkeen. Eta hori, oro har eta derrigorrez aplikagarria den araudi oro baldintzatu gabe, baldintza zorrotzagoak eskatzen baditu behintzat.

Artículo 23. Condiciones Particulares.

1. Instalaciones de saneamiento:

La red de saneamiento interior de cada parcela industrial será obligatoriamente de tipo separativo, es decir con independencia entre ellas, aguas pluviales o de lluvia por una parte, y aguas fecales o residuales por otra.

La red general de saneamiento de aguas pluviales, quedará reservada exclusivamente para la recogida de aguas de lluvia, tanto sobre las cubiertas de las edificaciones, como del resto de los espacios privados libres de edificación, es decir, de su urbanización complementaria.

La red general de saneamiento de aguas fecales o residuales, quedará reservada exclusivamente para tales aguas residuales o sucias, y deberá cumplir con los requisitos que le sean exigibles por la Normativa General de las Normas Subsidiarias de Planeamiento de Ikaztegieta, para su vertido al colector o Interceptor del Oria Medio de próxima construcción al otro lado de la carretera, y entre ésta y el río Oria.

Serán a cargo de cada usuario, la construcción, explotación y mantenimiento de las instalaciones interiores a la parcela y edificaciones privadas, que le sean exigibles para el cumplimiento de su normativa particular.

Las industrias que produzcan aguas residuales de proceso, instalarán en el punto de acometida del saneamiento interior de la parcela a la red general, o bien en el punto de acometida de la red de evacuación del local a la red interior de la parcela si hubiera varias actividades industriales independientes, una arqueta separativa y equipada para medición y toma de muestras.

Dichas arquetas se ubicarán siguiendo las directrices e instrucciones de los correspondientes Servicios Técnicos Municipales, fuera de las edificaciones, en lugar fácilmente accesible y a ser posible bajo suelo público.

2. Emisiones gaseosas:

Las emisiones gaseosas de las industrias, se atenderán a lo establecido por la «Ley de Protección del Ambiente Atmosférico» y a sus reglamentos de desarrollo, y por la legislación aplicable en el momento de su ejecución.

A tenor de lo anterior, toda instalación industrial deberá estar dotada de los medios y sistemas que garanticen su eliminación, hasta los límites legalmente establecidos para las emisiones de gases, polvo, vapor u otras sustancias.

3. Basuras y residuos sólidos:

Las sustancias o materias tóxicas y peligrosas no podrán ser evacuadas en ningún caso a través del sistema general de saneamiento o de recogida comunitaria de basuras y residuos sólidos.

El régimen jurídico básico necesario para que la producción y gestión de dicho tipo de residuos garantice la protección de la salud humana, la defensa del medio ambiente y la preservación de los recursos naturales, es el que se recoge en la Legislación Ambiental vigente.

Dentro del ámbito del nuevo polígono se habilitará una zona de contenedores que facilite la «recogida selectiva» de residuos industriales.

4. Ruidos, vibraciones y olores:

Igualmente, toda instalación industrial contará con los sistemas correctores exigidos por la legislación vigente para limitar las molestias generadas por olores, ruidos y vibraciones en las personas que trabajen en el lugar o habiten en sus inmediaciones, sin perjuicio de cualquier normativa de general y obligada aplicación, cuyas exigencias sean superiores.

Industria kokaturik dagoen lokal edo pabilioiaren kanpoaldean gaeuz 55 dB eta egunez 65 dB-etik gorako zarata sortzen duen jarduera, makina edo instalaziorik ez da onartuko. Era berean, inguruko egoitza-guneetako etxebizitzetan ez dute sortuko, inoiz, egoitzarako eraikin horietako industri jardueren baimentzen zaizkien zarata mailak baino handiagorik.

5. ATALA. Estetika eta apaindura baldintzak

24. artikulua. Apaindura eta tratamendu estetikoari buruzko baldintzak.

Lokal edo jarduera independente bat baino gehiago hartzen dituzten industri eraikinetan ez da onartuko eraikinaren kanpoaldeko egitura arkitektonikoa puntualki uki dezakeen jarduketarik; ezta jatorrizko fatxaden materialak edo koloreak partzialki artatu edota ordezteko obrarik ere. Horrela bada, aipatu eskuhartzeko horiek era homogeneoan eta harmonia gordez egin beharko dira eta Udalak hala eskatzean, bidezko azterketa eta proiektua aurkeztu beharko da.

Alorreko Plan honetako Antolamenduan aurreikusitako industriarako lur zatiaren ingurune osoa hesiz itxi ahal izango da baina horretarako, industriarako lur zati pribatuaren hiritar-tze proiektu osagarria erredaktatu beharko da, udal zerbitzu teknikoek ezartzen dituzten eskakizun eta xedapen guztiak jarraituz.

Industriarako lurzati orok, hala nola erabilera horretarako egiten den eraikin, eraikin-multzo edota lokal independente guztiak beren publizitate edota errotulazio sistema ezar dezakete, fatxaden osaketa arkitektonikoa eta estetikoarekin bat etorriko den modukoa; bestela, eraikinez aparte, zedarrak edo monolito moduan ere onartuko da baina, betiere, industriarako lur zati pribatuaren barruan, eta hirigintza publikoa edo berorren defentsa eta babes baldintzak inolaz ukitu edo kaltetuko ez diren moduan.

Inguruneko itxitura, errotulazioa, publizitatea, zedarrak edota monolito identifikatzailea eta abar ezartzeko erabiltzen diren elementu eta osagai guztiak jabetza pribatuan ipiniko dira, erabilera eta jabari publikoko eremurik inoiz hartu gabe.

Erabilera eta jabari pribatuko sailen barruan eraikuntzarik gabe geratzen diren espazio guztiak, ibilgailuentzako eta oinezkoentzako bide mistoak, aparkalekuak, zamaketa lanetarako eremuak, deposituak, lorategiak eta azpiegiturekin lotutako elementu guztiak segurtasun, osasungarritasun eta apaindura baldintza egokitan mantenduko dira uneoro.

Udalak, bidezko neurriak har daitezkeen eska dezake, zenbait instalazioen elementu edo ekiporen altuerak edota materialak zein hainbat elementu aire zabalean biltzeak apainduraren, ingurumenean edo paisaian sor ditzaketen inpaktu kaltegarriak arintzearen.

2. KAPITULUA. JABARI ETA ERABILERA PUBLIKOKO ESPAZIO LIBREEN SISTEMA LOKALA

25. artikulua. Erabilera eta eraikuntza baldintza orokorrak.

Alorreko Plan honetan antolatu den jabari eta erabilera publikoko espazio libreen sistema lokalaren helburua da, eremu hau arauk agintzen duten lorategi edo espazio libreez hornitzea, guztira antolatutako azaleraren gutxienez %10, hain zuzen ere ($\geq 20.983 \text{ m}^2$ -ren %10; $\geq 2.098 \text{ m}^2$).

Alorreko Planaren Antolaketa eta Zonakatzak proposatu duen eremua, mugatutako esparruaren Hego-Ekialdeko ertzean dago. Lur zati bakar bat osatzen du eta $2.352,02 \text{ m}^2$ -ko azalera du.

No se permitirá el funcionamiento de actividades, máquinas o instalaciones cuyo nivel sonoro exterior al local o pabellón en el que se emplacen, sea superior a 55 dBA durante la noche y a 65 dBA durante el día, ni en cualquier caso generarán en la edificación residencial del entorno, niveles sonoros superiores a los establecidos para actividades industriales toleradas en la propia edificación residencial.

SECCION 5.ª Condiciones Estéticas y de Ornato

Artículo 24. Condiciones de ornato y tratamiento estético.

En las edificaciones industriales que contengan varios locales o actividades independientes, no se autorizarán actuaciones puntuales sobre la composición arquitectónica exterior de los mismos, ni obras de mantenimiento o sustitución parcial de los materiales y colores de las fachadas originales, siendo obligatorio por tanto una intervención homogénea y armónica, que a exigencia municipal podrá ser motivo de un específico estudio o proyecto.

La parcela industrial prevista en la Ordenación del Plan Parcial, podrá ser vallada en la totalidad de su perímetro; debiendo realizarse en su caso, según lo defina el correspondiente Proyecto de Urbanización complementario de la parcela industrial privada, y según exigencias o determinaciones de los Servicios Técnicos Municipales.

Toda parcela industrial, edificación o conjunto de edificios y/o locales independientes, podrán contar con su propio sistema de publicidad y/o rotulaciones, debiendo estar, en su caso, integrado en la composición arquitectónica o estética de sus fachadas o de forma aislada tipo hito o monolito independiente de la edificación, pero en cualquier caso, en el interior de la parcela industrial privada y sin afectar o alterar a la urbanización pública, o a sus condiciones de defensa y protección.

Todos los elementos o componentes del vallado perimetral, rotulación, publicidad, hito o monolito identificador, etc., deberán realizarse íntegramente sobre propiedad privada y sin invadir espacios de uso y dominio público.

Todas las edificaciones, como los espacios libres de edificación y de uso y dominio privado, vialidad rodada-peatonal, aparcamientos, áreas de carga y descarga, depósitos, áreas ajardinadas y elementos afectos a infraestructuras, se realizarán y mantendrán en adecuadas condiciones de seguridad, salubridad y ornato.

El Ayuntamiento podrá exigir la adopción de las medidas necesarias que tiendan a atemperar o aminorar el impacto desfavorable en los ordenes estético, ambiental o paisajístico que puedan conllevar la altura o presencia de elementos o equipos de instalaciones de todo tipo, o el almacenaje de materiales y enseres al aire libre.

CAPITULO 2. SISTEMA LOCAL DE ESPACIOS LIBRES DE DOMINIO Y USO PUBLICO

Artículo 25. Condiciones generales de uso y edificación.

El Sistema Local de Espacios Libres de dominio y uso público de este Plan Parcial, responde a la exigencia reglamentaria de dotar al ámbito, con mínimamente el 10% de la total superficie ordenada, ($\geq 10\%/20.983$; $\geq 2.098 \text{ m}^2$), para uso o zona de jardines.

La zona propuesta por la Ordenación y Zonificación del Plan Parcial, se sitúa en el extremo Sureste del ámbito delimitado, conformando una única parcela, y con una superficie de $2.352,02 \text{ m}^2$.

Espazio libretarako proposatu den zona edo lur zati horretara hel daiteke ibilgailuen eta oinezkoen zirkulaziorako proposatu den eta esparrurako erabilera publikoko zorpena izango duen bide saretik. Gainera, Planeamenduko Erregelamenduaren 4. atalاک erabilera honi buruz ezarritako baldintzak betetzen ditu.

Eremu hau, esparruaren Hego-Ekialdeko ertzean, Ikaztegieta aldera eta herriaren nahiz gizartearen intereseko zerbitzuen zuzkiduretarako erreserben ondoan kokatzearen arrazo nagusia izan da etorkizunean Ikaztegieta herringunetik oinezkoentzako irisgarri egitea. Helburu hori lortzeko, erabilera eta jabari publikoko espazio gehiago erantsi beharko zaizkio, tarteko alderdietan lur erreserbak egiteko eta zuzkidurak ezartzeko antzeko jarduketak burutuz.

Eremu horrek jabari publikoa izango du (Udalarena) eta hirigintza erabilera hauek hartuko ditu: Parkea, lorategia, bidezidorra, hirigintza biguneko oinezkoen ibilbidea, jolasgune eta egonlekua, eta antzekoak, edonork erabiltzeko moduan. Debe-katuta dago materialak pilatzea edo biltegitratzea. Beharrezkoa suertatuko balitz, poligonoko instalazio eta azpiegituren pasabiderako zorpena izango du, baldin eta elementu horiek erabilera publikoa eragozten edo mugatzen ez badute eta eremu honi eman zaion erabilera, lorategiana, kaltetzen ez badute.

Eraikuntza baztertuta dago, poligonoren zerbitzurako instalazio eta azpiegituren elementu lagungarri txikiak izan ezik.

Herringunetik urrun geratzen denez, eta azalera txikia duenez, Alorreko Plan honetan proposatu da zuhaitzez hornitutako mendi-hegal hori bere horretan mantentzea.

3. KAPITULUA. EKIPAMENDUETARAKO ERRESERBA (HERRIAREN ETA GIZARTEAREN ONURAKO ZERBITZUAK)

3.1 Kapituluak. Kirol parkea

26. artikulua. Erabilera eta eraikuntza baldintza orokorrak.

Alorreko Plan honetan antolatu den kirol ekipamendurako (kirol parkea) erreserbaren helburua da, arauen arabera kirol erabilerako gorde beharreako lur eremua gordetzea, hau da, gutxira antolatutako azaleraren gutxienez %2, hain zuzen ere ($\geq 20.983 \text{ m}^2$ -ren %2; $\geq 420 \text{ m}^2$).

Gorago azaldutako irizpide eta helburu berari jarraituz, erreserbatutako eremu hori, esparruaren Hego-Ekialdeko ertzean dago eta kasu honetan ere, ibilgailuen eta oinezkoen zirkulaziorako proposatu den bidetik iritsi ahal izango da bertara.

Jabari publikoa izango du (Udalarena) eta kirolerako erabiliko da, nahiz eta horrekin bateragarriak diren beste erabilerak ere onartuko diren, esaterako, egonlekuak, pasealekua, haurren jolasguneak, lorategiak eta antzekoak, edonorentzako. Debe-katuta dago materialak pilatzea edo biltegitratzea. Beharrezkoa suertatuko balitz, poligonoko instalazio eta azpiegituren pasabiderako zorpena izango du, baldin eta elementu horiek eremuaren erabilera publikoa eragozten edo mugatzen ez badute.

Lur zati honetan aire zabaleko kirol jarduerak eta berauen erabilera lagungarriak bakarrik onartuko direnez, ez da inolako eraikigarritasunik edo eraikuntza probetxamendurik proposatu; beraz, eraikuntza baztertuta dago, poligonoren zerbitzurako instalazio eta azpiegituren elementu lagungarri txikiak izan ezik.

Herringunetik urrun geratzen denez, eta azalera txikia duenez, Alorreko Plan honetan proposatu da zuhaitzez hornitutako mendi-hegal hori bere horretan mantentzea.

La zona o parcela propuesta para dichos Espacios Libres, es accesible desde la propuesta de vialidad rodada-peatonal privada con servidumbre de uso público del ámbito, y cumple con las condiciones establecidas por el apartado 4.º del Anexo al Reglamento de Planeamiento para tal uso.

La propuesta de situarla al extremo Sureste del ámbito hacia Ikaztegieta, y adosada a las reservas para dotaciones de los Servicios de Interés Público y Social, responde básicamente a la idea de posibilitar a futuro, que pueda accederse peatonalmente desde el casco urbano de Ikaztegieta, mediante la adición de otros espacios de uso y dominio público, por otras operaciones similares de reservas y dotaciones de las áreas intermedias.

Su dominio será público (Ayuntamiento), y su uso urbanístico será el de parque, jardín, senda, paseo peatonal con urbanización blanda, áreas de juego y estancia, etc.; y con acceso libre. No se permite el uso de almacenamiento o acopio de materiales. De ser necesario, y siempre que no impidan o limiten su uso público y su destino a jardines, tendrán la servidumbre de paso de instalaciones e infraestructuras de servicios al polígono.

La edificación queda excluida, salvo en su caso, los pequeños elementos auxiliares de las instalaciones e infraestructuras de servicios al polígono.

Dada la situación alejada del núcleo urbano de la población, y su escasa dimensión; desde este Plan Parcial, se propone el mantenimiento en su estado natural, de la ladera arbolada existente.

CAPITULO 3. RESERVAS DE EQUIPAMIENTOS (SERVICIO DE INTERES PUBLICO Y SOCIAL)

Capítulo 3.1 Parque deportivo

Artículo 26. Condiciones generales de uso y edificación.

La reserva de Equipamiento Deportivo (parque deportivo) de este Plan Parcial, responde a la exigencia reglamentaria de reservar mínimamente el 2% de la total superficie ordenada ($\geq 2\% \text{ s} / 20.983; \geq 420 \text{ m}^2$) para tal uso deportivo.

Siguiendo el mismo criterio y objetivo anteriormente expuesto, la zona reservada, se sitúa en el extremo Sureste del ámbito y es igualmente accesible por la vialidad rodada-peatonal del polígono.

Su dominio será público (Ayuntamiento), y su uso urbanístico será el deportivo, compatible con los usos de estancia, paseo, juegos de niños, ajardinamiento, etc., y con acceso libre. No se permite el uso de almacenamiento o acopio de materiales. De ser necesario y siempre que no impidan o limiten su uso público, tendrán la servidumbre de paso de instalaciones e infraestructuras de servicios al polígono.

No se propone ninguna edificabilidad o aprovechamiento edificatorio sobre dicha parcela, entendiéndose que únicamente se permitirán actividades deportivas al aire libre, o al servicio de dicha actividad; quedando por tanto excluida la edificación, salvo en su caso, los pequeños elementos auxiliares de las instalaciones e infraestructuras de servicios al polígono.

Dada la situación alejada del núcleo urbano de la población y su escasa dimensión; desde este Plan Parcial, se propone el mantenimiento de su estado natural, de la pradera arbolada existente.

3.2 Kapituluua. Gizarte eta merkataritza ekipamendua

27. artikulua. Erabilera eta eraikuntza baldintza orokorrrak.

Gizarte eta merkataritza ekipamenduko erreserba egitearen helburua da, arauen arabera gorde beharreko lur eremua gordeztea, hau da, guztira antolatutako azaleraren gutxienez %2, hain zuzen ere ($\geq 20.983 \text{ m}^2$ -ren %2; $\geq 420 \text{ m}^2$), gizarte ekipamendurako %1 eta merkataritza ekipamendurako beste %1. Hauek osatzen dute, aurreko kirol ekipamenduarekin batera, herriaren eta gizartearen intereseko zerbitzueterako egin beharreko erreserba.

Aurreko erreserben eta zuzkiduren kasuan bezalaxe, esparruaren Hego-Ekialdeko ertzean kokatzea proposatu da, Ikaztegieta aldera, etorkizunean Ikaztegieta herrigunetik oinezkoentzako irisgarri izango den moduan. Horretarako, tarteko eremuan erabilera eta jabari publikoko espazio gehiago lortu beharko dira, lagapen edo erreserba bidez.

Espazio libreen sistemako lorategien eremuaren ondoan kokatzea proposatu da, lehengo kirol ekipamenduko lur zatia- ren aurrez aurre, bien artean poligonoko bide sare lokaleko ibilgailuen eta oinezkoen zirkulaziorako bide txiki bat geratuko den moduan. Horrela, jendearen irisgarritasuna bermatuko da eta, aldi berean, etorkizunean beste espazio publikoetara luzatzeko aukera emango da.

Azaleraz txikia denez eta Ikaztegieta herrigunetik urrun dagoela kontuan hartuz, gizarte eta merkataritza erabilerarako lur zati bakar bat ezartzea proposatu da. Hala ere, beharrezko edo komenigarri bada, Udalak bitan banatu ahal izango du.

Arrazoi berak tarteko, gizarte eta merkataritza erabilerako okupaziorik edo jabari publikoko eraikigarritasunik ez da aurreikusi, nahiz eta Udalak, gaur alferrikakoa den baina gerora komenigarria izan daitekeen eraikinen bat egin ahal izango duen, aipatutako xederako. Hala gertatuko balitz, lur zatia- ren tamaina txikia ikusita, gizarte edo merkataritzako eraikin horrek 150 m^2 -ko azalera okupatuko luke gehienez; eta, 300 m^2 -ko eraikigarritasuna edo azalera eraikigarria izango luke, asko jota ere. Eraikin horrek 10 metroko altuera izango du gehienez, eta behe solairua + 2 goi solairuko profila, eta gutxienez 5 metroko tartea utzi beharko du ondoko landa-eremuaren mugara.

Egin daitekeen gizarte edo merkataritzako eraikina publikoa izango litzatekeenez, poligonoko okupazioa edo gehieneko eraikigarritasun industrialak konputatzerakoan ez litzateke aintzat hartuko.

Antolaketa planoetan, hiru aparkaleku grafiatu dira gorago aipatu diren erreserba eta zuzkiduretarako eremuaren ondoan. Horiek, ordea, gizarte edo merkataritza erabileren zerbitzurako bakar-bakarrik izan daitezke.

Azkenik, eremu hau Ikaztegieta herrigunetik urrun geratzen denez, eta azalera txikia duenez, gaur egun zuhaitzez hornituak dauden eremuak bere horretan mantentzea proposatzen da, baina betiere, arestian aipatu diren aukerak baldintzatu gabe.

4. KAPITULUA. BIDE SISTEMA

4.1. Kapituluua. Bide sistema orokorra (GI-2131)

28. artikulua. Erabilera eta eraikuntza baldintza orokorrrak.

Eremu honetako bideen sistema orokorra Ordiziatik Alegiarako GI-2131 errepideak osatzen du (eskualde mailako errepidea-sare berdea) (garai bateko N-1 errepidea, gaur auto- biako bidezubi gisa iragaiten da esparruaren Iparraldeko ertzetik).

Capítulo 3.2 Equipamiento Social y Comercial

Artículo 27. Condiciones generales de uso y edificación.

La reserva de Equipamiento Social y Comercial responde a la exigencia reglamentaria de reservar mínimamente el 2% de la total superficie ordenada ($\geq 2\%/20.983; \geq 420 \text{ m}^2$), y compuesta por el 1% para Equipamiento Social, y el 1% para Equipamiento Comercial; que conjuntamente con el anterior Equipamiento deportivo, conforman las reservas para los Servicios de Interés Público y Social.

Al igual que las anteriores reservas y dotaciones, se propone situarla en el extremo Sureste del ámbito y hacia Ikaztegieta, con la finalidad de que a futuro pueda comunicarse peatonalmente con el casco urbano de Ikaztegieta, mediante otras cesiones y/o reservas de espacios de uso y dominio público en el espacio intermedio.

Se propone situarla junto a la zona de jardines del Sistema de Espacios Libres, y enfrentada a la anterior parcela de equipamiento deportivo, de la que se separa por un pequeño viario de coexistencia rodado-peatonal desde el sistema local viario del polígono, garantizando así su accesibilidad pública, y con posibilidad de prolongarse a futuro, a otros espacios públicos.

Dada su escasa dimensión y su alejamiento del núcleo urbano de Ikaztegieta, se propone una única parcela para tales usos social y comercial; si bien el Ayuntamiento podrá dividirla en dos de estimarse necesario o conveniente.

Por las mismas razones, no se plantea ninguna ocupación o edificabilidad de dominio público para tales usos social y comercial; si bien queda abierta la posibilidad de que el Ayuntamiento pueda realizar en el futuro alguna edificación para tales usos, hoy innecesarios. En tal caso, la posible edificación social y/o Comercial, y dada la dimensión de la parcela soporte, tendrá una ocupación máxima de 150 m^2 , y una edificabilidad o superficie máxima edificable de 300 m^2 . Su altura máxima será de 10 m., con perfil máximo de B+2 plantas, y se separará mínimamente 5 m de la delimitación del ámbito con el suelo rural colindante.

Dado el carácter público de dicha posible edificación social y/o comercial, se considera que no computa a efectos de ocupación y edificabilidad máxima industrial propuesta.

Colindante al conjunto de las anteriores reservas y dotaciones públicas, se han grafiado en la ordenación, hasta tres plazas de aparcamientos que tendrán la consideración de reserva o uso exclusivo a tales fines social y comercial.

Por último, y dada la situación alejada del núcleo urbano de Ikaztegieta, y su escasa dimensión, y sin perjuicio de las anteriores posibilidades, se propone el mantenimiento de su estado natural de zonas libres arboladas existentes.

CAPITULO 4. SISTEMA VIARIO

Capítulo 4.1 Sistema General Viario (GI-2131)

Artículo 28. Condiciones generales de uso y edificación.

El Sistema General Viario del ámbito, está constituido por la carretera GI-2131 de Ordizia a Alegia (carretera de la red comarcal-red verde) (antigua N-1, que hoy pasa en autovía-via- ducto justo en el extremo Norte del ámbito).

Proposatutako aldaketen eraginez, errepidearen gaur egungo ardatza arteko eremua sartu da poligono berriaren mugen barruan, hau da, Ikaztegieta-Legorreta noranzko errepide-erdia sartu da.

Proposatutako eraberrikuntzak aurreikusitu du, alde batetik, ezkerrean biratzeko itxaron-errei zentral bat egitea eremuaren Iparraldeko erdian, Legorretatik poligonora sartzeko eta Ikaztegieta aldera irteteko erabili ahal izango dena. Eta bestetik, eskuinalderako sarrera-irteerarako erreiak egitea, bai Ikaztegieta aldetik sartzeko, baita Legorreta aldera irteteko ere.

Era berean, Oria ibaiaren beste aldean dagoen eta Ikaztegieta aldetik Eredu eta Ederfil kooperatibetara sartzeko «erraketa» moduko biragune horren ordez, ezkerrean biratzeko beste itxaron-errei zentral bat egitea proposatu da, bai Ikaztegieta aldetik sartzeko baita Legorreta aldera irteteko ere, zentzuzkoagoa baitirudi horrela egitea, batez ere kontuan hartuta, Ibiur urtegiak esparruaren behealdean, gaur egungo sarbidean izango duen eragina dela eta, aipatutako errei hori gaur edo bihar Baliarrain aldera hartzeko erabili ahal izango dela.

Errepide hori jabari publikokoa izango da (Gipuzkoako Foru aldundiarena), erantsiko zaizkion errei zentralak eta poligono berrira sartzeko alboko erreiak bezalaxe. Eta, erabilera eta eraikuntza baldintzei dagokienez, hau da, behin betiko trazadura eta xehetasuneko ezaugarriei dagokienez, Gipuzkoako errepideen eta bideen 17/1994 Foru Arauak, azaroaren 25ekoak, ezarritakoa beteko da, foru zerbitzu tekniko eskudunekin bat etorritik.

4.2. Kapituluak. Ibilgailuen eta oinezkoen zirkulaziorako bideak, eta erabilera publikoko zorpena izango duten aparkamendu pribatuak

29. artikulua. Erabilera eta eraikuntza baldintza orokorrak.

Poligono berriaren bide sistema lokala, errepideko sistema orokorretik egingo diren sarbideen luzapen gisa eta sistema horri lotuta egitea proposatu da. Funtsean, aipatutako errepidearen paraleloan egingo den ibilgailuen zein oinezkoen bideak osatuko du sistema lokal hori.

Bide horrek 7 metro zabaleko galtzada izango du ibilgailuen zirkulaziorako, gehi 2 metro zabaleko espaloia edo oinezkoen ibilbidea, gerora egingo den eraikuntzari atxikia; eta, espaloia horren ondoan, poligono berriaren zerbitzurako aparkamendu bandak.

Aipatutako bide sistema lokal horren luzapen gisa, Hegoaldeko ertzean, erreserba eta zuzkidura publiko desberdinen artean, ibilgailuen eta oinezkoen zirkulaziorako bide txiki bat egitea proposatu da, jendearen irisgarritasuna bermatzearen; baita ibilgailuena ere, halakorik behar izanez gero.

Gerora ziurrenik eraikin bakar bat egingo dela pentsatuta, ibilgailuen eta oinezkoen zirkulaziorako multzo osoa jabetza pribatukoa izan dadin proposatu da, nahiz eta erabilera publikoko zorpena izango lukeen.

Honako erabilerak izango ditu: Industriarako alor berrilko ibilgailuen eta oinezkoen zirkulazioa, galtzari erantsitako aparkalekuak, lorategiak, berdeguneak eta geratuko diren espazio libreak, eta poligonoaren zerbitzurako instalazio eta azpiegituren pasabidea.

Eraikuntza baztertuta dago, poligonoaren zerbitzurako instalazio eta azpiegituren elementu lagungarri txikiak izan ezik.

Antolaketa eta Zonakatzea izeneko plano orientagarrietan 65 aparkaleku grafiatu dira, ibilgailuen eta oinezkoen zirkulaziorako bidearen ondoan. Horietatik 3, soil-soilik herriaren

En razón de las modificaciones propuestas, en la delimitación del nuevo polígono, se incluye hasta su eje actual, es decir, incluyendo la semicarretera en sentido Ikaztegieta-Legorreta.

La reforma propuesta incluye por una parte; y en su mitad Norte, la ejecución de un carril central de espera para giros a izquierda, tanto para entrar al nuevo polígono desde Legorreta como para salir hacia Ikaztegieta, así como los correspondientes carriles laterales de acceso-salida a derechas, tanto desde Ikaztegieta como hacia Legorreta.

Y por otra, y en sustitución de la actual «raqueta» de giro a izquierda desde Ikaztegieta para entrar a Eredu-Ederfil, S. Coops., al otro lado del río Oria, se propone otro carril central de espera para giros a izquierda, tanto para entrar desde Ikaztegieta como para salir hacia Legorreta, entendiéndolo más correcto, y sobre todo porque a futuro, servirá además como acceso a Baliarrain, dada la afeción de la futura presa de Ibiur al actual acceso, aguas abajo del ámbito de este polígono.

El dominio de la carretera, ampliada con los mencionados carriles centrales, e incluso con los carriles laterales de acceso al nuevo polígono, será público (Diputación foral de Gipuzkoa); y las condiciones de uso y edificación, como trazados definitivos y características de detalle, se realizarán de conformidad con la Norma Foral 17/1994 de 25 de noviembre, de Carreteras y Caminos de Gipuzkoa, y con los correspondientes Servicios Técnicos Forales.

Capítulo 4.2 Vialidad rodada-peatonal y aparcamientos privados con servidumbre de uso público

Artículo 29. Condiciones generales de uso y edificación.

Conectado, y en prolongación de las anteriores accesos desde el sistema general de la carretera, se propone el sistema local viario del nuevo polígono que básicamente está constituida por un vial rodado-peatonal en paralelo a dicha carretera.

El viario se conforma como suma de una calzada para la circulación rodada de 7 metros de anchura, una acera o itinerario peatonal adosada a la futura edificación, de 2 metros de anchura; y anejos a las mismas, distintas bandas de aparcamiento al servicio del nuevo polígono.

En prolongación del sistema local viario anterior, en su extremo Sur y entre las distintas reservas y dotaciones públicas, se ha propuesto un pequeño viario de coexistencia rodado-peatonal para garantizar su accesibilidad, incluso rodada en su caso.

Todo el conjunto rodado-peatonal se propone de propiedad privada, atendiendo a la previsible única edificación futura, pero con servidumbre de uso público.

Su uso urbanístico será el de circulación rodado-peatonal del nuevo sector industrial, el aparcamiento anejo a la calzada, el ajardinamiento de las zonas y espacios libres y residuales anejos, y el paso de las instalaciones e infraestructuras de servicios del polígono.

La edificación queda excluida, salvo en su caso, los pequeños elementos auxiliares de las instalaciones e infraestructuras de servicios del polígono.

Aneja a la vialidad rodada-peatonal, en los planos orientativos de Ordenación y Zonificación, se han grafiado hasta 65 plazas de aparcamiento. De las mismas, se han reservado 3 para

eta gizartearen intereseko zerbitzuen erabilpenerako gorde dira; beraz, gainerakoak, 62 aparkaleku alegia, gerora egingo den eraikuntza industrialaren zerbitzurako izango dira (industrial arako solairu estalgarria, 6.123 m² gehienera).

Egingo diren eraikinen sarbideak beste era batera antolatzearen ondorioz, edo beste edozein arrazoiren eraginez, aipatutako aparkaleku kopuru hori murriztu beharra gertatuko balitz, murrizpen hori beste nonbait konpentsatu beharko litzateke, bide eta aparkalekuen antolaketa berria batean, edo Planak mugatutako lur zati pribatuaren barruan, bestela.

Irisgarritasuna sustatzeko Legearekin bat etorritz, 40 aparkaleku edo zatiki bakoitzeko gutxienez 1 (kasu honetan 2 guztira) mugikortasun murriztua duten pertsonak garraiatzen dituzten ibilgailuentzako gorde beharko dira; gutxienez 3,60 x 5,00 metrokoak (zeharkakoak badira) eta 2,20 x 6,00 metrokoak (ilarakoak kasuan), hala agintzen baitute hiri inguruko irisgarritasun baldintza teknikoak jasotzen dituen 68/200 Dekretuko 3-11-8 eta 9. artikuluek, zeharkako edo ilarako aparkalekuen kasuan, ibilgailuen zirkulaziorako arazoak daudenean eta oro har gutxienez 3,60 x 6,00 metroko neurriak mantentzea ezinezkoa den kasuetan.

5. KAPITULUA. EZAUGARRIEN TAULAK

30. artikulua. Industri erabilerako lurra.

1. P-2 Benta poligonoko lurzoru industrial hiritargarriko Alorraren azalera osoa: 20.983 m².

2. Kalifikazio xehekatua.

uso exclusivo de los Servicios de Interés Público y Social, por lo que se considera que el resto, 62 plazas, corresponden al futuro uso y edificación industrial (6.123 m² de techo máximo industrial).

Cualquier pérdida de dichas plazas de aparcamiento por distinta disposición de los accesos rodados a las futuras edificaciones u otras causas, deberá ser repuesta en igual medida, bien en una reordenación de los espacios de vialidad-aparcamiento, o bien en el interior de la parcela privada delimitada por el Plan.

De conformidad con la Ley de Promoción de la Accesibilidad, de dichas plazas, se reservarán un mínimo de 1 plaza por cada 40 o fracción, en este caso 2, con dimensión mínima de 3,60X5,00 metros (en batería) ó 2,20X6,00 metros (en línea), para exclusivo uso de vehículos que transporten personas con movilidad reducida, tal y como lo especifican los artículos 3-11-8 y 9 de las Condiciones Técnicas de Accesibilidad en el entorno urbano (Decreto 68/2000) para situaciones de aparcamiento en batería o en línea, y se den las circunstancias de dificultad en la circulación rodada que no hagan posible la dimensión mínima de 3,60 x 6,00 metros en general.

CAPITULO 5. CUADROS DE CARACTERISTICAS

Artículo 30. Suelo de uso industrial.

1. Superficie total del Sector de Suelo Urbanizable Industrial del Polígono P-2.P-2-Benta: 20.983 m².

2. Calificación pormenorizada.

<i>Erabilera xehekatuko zonak / Zonas de Uso Pormenorizado</i>	<i>Zenbatekoa m² Cuantía m²</i>	<i>Estandarrak %tan / Estándares %</i>
Industri erabilerako lur zati pribatua / Parcela Industrial Privada	9.872,64	47,05
Jabari eta erabilera publikoko espazio libreen sistema (lorategiak) / Sistema de Espacios Libres de dominio y uso público (jardines)	2.352,02	11,21
Ekipamendurako erreserbak (herriaren eta gizartearen onurako zerbitzuak) / Reservas de Equipamiento (Servicios de interés Público y Social)		
Kirol parkea / Parque Deportivo	428,35	2,04
Gizarte eta merkataritza ekipamendua / Equipamiento Social y Comercial	420,03	2,00
Bide sistema / Sistema Viario		
Bide sistema orokorra (GI-2131) / Sistema General Viario (GI-2131)	4.187,31	19,96
Ibilgailuen eta oinezkoen zirkulaziorako bideak, eta erabilera publikoko zorpene izango duten aparkamendu pribatuak / Vialidad rodada-peatonal y aparcamientos privados con servidumbre de uso público	3.722,65	17,74
P-2 BENTA INDUSTRI ALORRAREN AZALERA OSOA TOTAL SUP. SECTOR INDUSTRIAL P-2-BENTA	20.983,00	100,00

3. Erabileren eta probetxamenduen taula:

— Industriadarako Alorraren azalera osoa: 20.983,00 m².

* Jabetza pribatuko azalera osoa: 18.840,61 m².

* Bideen jabari publikoaren azalera (GI-2131): 2.142,39 m².

— Hiri Antolaketako Arauetako probetxamendu baldintzak.

* Eraikuntzak gehienez okupa dezakeen azalera.

18.840,61 m²-ren %25: 4.710,15 m².

* Gehieneko probetxamendua (eraikigarritasuna).

18.840,61 m²-ren 0,325 m²/m²: 6.123,20 m².

3. Cuadro de usos y aprovechamientos:

— Superficie total del Sector Industrial: 20.983,00 m².

* Superficie Total de Propiedad Privada: 18.840,61 m².

* Superficie de Dominio Público Viario (GI-2131): 2.142,39 m².

— Condiciones de aprovechamientos de las NN.SS.

* Ocupación máxima de la edificación.

25% s/18.840,61 m²: 4.710,15 m².

* Aprovechamiento máximo (edificabilidad).

0,325 m²/m² s/18.840,61 m²: 6.123,20 m².

4. Erabilera eta eraikuntza baldintzak:

